

...eta
Kitto!

2019-IX-27

1113 zkia.



Arimaren barrenera bidaiatzen

dica® **eibar**

URRATEGI INTERIORISMO

www.urrategiinteriorismo.com

Arragueta 27

Tel: 943 857 244

s
u
k
a
l
d
e
a
k

d
i
s
e
i
n
u
a



gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ
Instalakuntzak eta konponketak
antena

Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac **trinmer**
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com

**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA

egoluz 
ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac 677 51 24 62
egoluz@hotmail.com 630 95 73 45
943 20 06 97

THELECEER 
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

IGELTSEROAK


Eraikuntza
Erreformatz
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ARKITEKTOAK

olatz etxeberría martínez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberría

arkitektura, hirigintza eta periferiazko
erakin eta obretako kudeaketa teknika

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS



E.I.T.
ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 50
AJT Zihurtasuna S.L.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com ERAKUSKETA
Arikixaneko Zubian
eta faxa: 943 203 903

AROTZAK

ulmar
S.L.



metalezko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D



www.kolorlan.com 667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabiak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

GAZTEON ATALA:
Malen Illarramendi

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOAK: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Mikel Quina

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

Eskutitzak

Eta gora Legarre!!!

Berriz ere, eta bederatzigarrenez, egin ditugu Legarren jaixak. Gustora ibili gara, kantu, dantza, jolas, jan eta edanean auzolana eta bizkidetza bultzatzen. Hori izan da eta da gure filosofia, auzolanean bizkidetza landu, eta jaiak horretarako marko bikaina dira. Ume, gazte, heldu eta zahar elkarrekin gozaten ikustea ikaragarri ederra da.

Eskerrik asko berriz ere eta urtez urte diruz laguntzen diguzuen guztioi, ezinbestekoa baita zuen aportazioa edozein ekimen aurrera ateratzeko. Errifak erosi dituzuenoi ere eskerrik asko. Hemen zenbaki sarituak: laugarrena, 1226; hirugarrena, 1220; bigarrena, 1094 eta lehena, 644. Eta eskerrik bero eta bereziena auzotarrei euren parte-hartze, ilusio eta alaitasunagatik.

Aurten, bizikidetzaren eta auzolanaren isladatxo bat markatuta geratu da umeen parkeko hormetan. Urteetan horretarako ezin aproposago diren pareta horietan muralak egiteko asmotan ibili gara eta aurten, inork lagundu ez digun arren, aurrera egitea erabaki dugu. Emaizta zoragarria izan da, mila esker, Gorka, egin duzun lan ederragatik. Auzoari kolore eta alaitasuna emateaz gain hormak berbetan jarri eta zenbat gauza esan ditzaketen erakutsi diguzu.

Datorren urtean hamargarrenak, gure auzo txikian jai bereziak egiten saiatuko gara berriz ere.

Arrajolape Kultur Elkartea

Lankidetzak eskertuz

Aste honetan Berbetan pogramaren jaietan burubelarri jardun du ...eta kitto! Euskara Elkartea. Esku artean duzun aldizkari honetan daude argazkiak. Martitzenean Ipurua inguruan izan ginen, eguztenean Urkin eta gaur bertan Urkizun. Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi

dirkiegu jolasak eta txokolate-jana prestatzeko laguntasun osoa eskaini diguten tabernei; eskerrik asko Ipur, Cepa eta Baisiri eta bertako behargineri, laguntzeaz gain gure lana asko erraztu diguzuelako.

...eta kitto! Euskara Elkartea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MOKO-PAÑUELO.- Musuzapia. "Dakaran katarruakin moko-pañuelua etxian ahaztia be markia dok ba".

MOKOFIN.- Jateko ona gustatzen zaiona. Gaztelera "sibarita". "Ha mokofiña dok, ez jak dartzako txiringito batera juango".

astean esanak

"Badira 20 urte Alemaniako Golf Federazioak milioi askoko ikerketa abiatu zuela jakiteko golf-pilotak jateak kalterik egiten zion bertako behien osasunari. Hain gose ziren behi horiek? Inkesta golf-zelaietan inguruko belardietan zebiltzanein egin zieten ala guztiei? Zergatik ez zuten tenis-pilotarik jaten? Ez dut berri gehiagorik jaso ordutik. Bestalde, orain dela gutxi jakin izan dugu kuzeroetan jokatzeko lehen golf-pilota ekologikoa eta biodegradable merkaturatu dutela, itsasoratu bezain laster sardina eta bakailaoen

gozamenerako elikagaiak askatzen dituen. Modu horretan, enpresa horrek ingurugiroa zainduko du eta aldaketa klimatikoari aurre egingo. Zer izango da hurrengoa? Hemendik ez askora, honako berriarekin etorriko zaizkigu: "Mediterraneoko kuzeroetan golf-torneoak irabazi dituzten gizonen %75 golf-pilotekin elikatutako behien esnea edan zuten txikitari" Badira berriak bizi garen mundu hau miseriatik haratagotik azalzen digutena"

(KOLDO CAMPOS, IDAZLEA)

"Musika klasikoaren puristak museo batean egon beharko lukeke. Munduko pianista onenen

kontzertuetan aretoak erdi hutsik egoten dira, guztia puristek musika zeozer eskusibotzat dutelako; hori beldurgarria da. Puristak musikatik bota behar dira. Bestelako publikoa behar dugu, hemendik hogeit ertera superpijo horiek guztiak hilda egongo direlako. Ezin da musika klasikoa entzun eliza barruan egongo bazina bezala. Musika entzutea emozioekin jokatzeko aukera bikainena da eta ez duzu instrumentu bat jotzen jakin behar. Sasoi batean AEB-etan piano gehiago zegoen bainarak baino: jendeak usain txarragoa izango zuen, baina bazekien musikaz gozaten. Gure esku dago oraindik"

(JAMES RHODES, PIANISTA)

Bi unidade soziosanitarixo zabalduko dittue Eibar Ospitalian, Aldundiak kudeatuta

Osasun eta gizarte premiñak dittuen gaixuak artatzeko bi unidade soziosanitarixo jarriko dittue martxan Eibar Ospitalian. Muga funtzionalak dakezelako edo bazterketa egoerian daguezelako, etxera jua ezin diran gaixueri transiziñorako gune bat eskinduko detse aittatutako bi unidiok. Ospitaleko solairu oso bat hartuko dabe, 48 lagunendako tokixarekin. Horretarako, Osakidetzak hirugarren solairua emon detsa Diputaziñuari ingresau biharra daken gaixuendako. Gipuzkoako Foru Aldundixak kudeatuko dittu 2020ko udan martxan jartzia espero dittuen instalaziñuak.



Oier Areitio motorzale eibartarra hil da Trabakuan izandako istripuan

Astelehenian, arratsaldeko bederatzia hamar gitxiagotan gertatu zan istripuan auto baten kontra kolpia jo eban motorrak, BI-633 errepidiaren 37,5 kilometruan, Mallabiko Zengotita auzuan, Trabakuan bidian. Oier Areitio 38 urteko gaztia larri zauritu eta istripua gertatu zan tokixan bertan hil zan. Berarekin motorrian zoian 21 urteko neska galdakaoarra, barriz, Guruzetako Ospitalera eruan eben, zauri larrixekin.

Arrateko jaixetako lapurretia salatzeko idatzixa

Aurtengo Arratietan pasautakuaren inguruko idatzixa egin dabe jai batzordiak eta bertan parte hartu daben eragilliak (Jaixak Herrixak Herrixandako, Bizimina, Presoen Aldeko Mugimendua, Ernai eta Sortuk): *"Herriatik eta herrixarendako antolatzen diran jai guztien moduan, Arrateko jaixak antolatzeko be ikusten ez dan lan mordua egin biharra dago (billerak udan, programia preparau eta aurrera etara, burokrazia kontuak, udalarekin billerak, eskaeriak egin, baimenak lortu, kontzertuak lotu, txandak antolatu, txosnak montau eta desmontau...).* Beste jai eruedetatik bereizten gaittuen autogestiñua, eta ez gure poltsikuak diruz betetzia da. Horregaittik, Arraten egin zeskuen lapurretia salatu nahi dogu, generotan eruan zittuen 1.000 euroak gure biharra eta proiektuak kolokan jartzen dittualako. Ez deskue bakarrik txosnakeri lapurtu, herri guztiari baiño eta horrelakuak ez dake tokirik gurian. Arratietan parte hartu dogun eragilliok gure espaziotatik kanpora nahi zaittuegu. Ez dago gure proiektuak oztopatuko dittuenik. Jaixak herrikoiak, parte-hartzailliak, euskaldunak eta feministak izango dira, edo ez dira izango!"



Algaraklown alkartekuak jaso dabe sozialisten txosnako dirua

Arrateko jaixetan Eibarko Sozialistak ipiñi eben txosnari esker bildutako dirua (517'24 euro) Algaraklown alkartekueri emon detsez. Algaraklown Ospitaleko Pailazoak irabazi asmorik gabeko alkarteko Karnele Etxeberriak aurreko astian jaso eban dirua, Jon Iraola Eibarko Sozialisten idazkari nagusixaren eskutik, eta bixak azaldu ziran pozik lortutako emaitzarekin.



Bixar hasiko dira San Miguelak Agiñagan

Asteburu honetan hasiko dira Agiñaga-ko jaixak. Bixar, San Miguel bezperia dala eta, 18:00etan kanpaiak irauliko ditue. Eta domekan, San Miguel egunian, 11:00etan mezia ospatuko dabe ermittan, Usartza txistulari taldekuak lagunduta. Eguardixan, barriz, luntxa eta umiendako jolasak hasiko dira eta 14:30xetan paella-jana egingo dabe. Eta arratsaldian, 17:00etatik aurrera, erromerixia egongo da, Mirari eta Aintzane trikitilarixak alaituta. Sanmiguelak ospatzeko preparau

daben programiak, baiña, hurrengo asteburuan segiduko dau: urriaren 5ian (zapatuan), briska txapelketia (17:00etan), umiendako jolasak eta txokolate-jana (18:00etan), Ixua jatetxian afarixa (urriaren 3rako izena emon bihar da, 943701292 telefono zenbakira deittuta) eta 23:00etan hasiko dan erromerixia, Puro Relajo taldiarekin egingo dira. Eta hurrengo egunian, barriz, mezia eta hamarretakua (11:00etan), Gorixoren aberiak (12:30xetan) eta oparixen zozketia (14:00xetan).

Greziako errefuxiatueri laguntzen ibillitako boluntarioen hitzaldixa

Grezian errefuxiatuekin bizi izandakua kontatzeko hitzaldixa emongo dabe Elixabet Manzano eta Miren Zubeldia, abuztuan hango kanpamenduetan boluntario ibilli ziran neska bixak. Martitzenian egingo dabe berba, 19:00etan Portaleko areto nagusixan eta sarrera libria izango da.



autuan

KINTUEN BAZKARIXAK

Urriaren 5ian ospatuko dabe euren jaixa 1986xan jaixotakuak: 12:00xetan Untzagan alkartu eta, txikiteuan ibilli eta gero, 14:00xetan egingo dabe talde argazkixa. Bazkarixa Arraten, tiro-pitxoian izango da eta autobusa Ego-Gaiñetik urtengo da, 14:30xetan. Arratsaldian handik bajatu eta sorpresia eukiko dabe. Izena emoteko 60 euro sartu bihar dira Kutxabankeko kontu honetan: ES87 2095 5035 0091 1915 5623.

1949xan jaixotakuak, barriz, urriaren 19xan alkartuko dira, 13:00ian Koskor tabernan. Hamarretakua hartu eta, jarraixan, talde-argazkixa egingo dabe, Untzagan. Bazkarixa Unzaga Plaza hotelian izango da. Izena emoteko 65 euro sartu bihar dira Sabadell bankuko ES27 0081 4314 9000 0109 9520 kontuan. Argibide gehixagorako 635717400 telefonora deittu.

Eta urriaren 26xan ospatuko dan 1969ko kintadarako ekitaldixan parte hartzeko izen-emotia zabalik dago, baiña antolatzailliak lehenbailehen egittia eskatu dabe. Izena emoteko 95 euro sartu bihar dira La Caixa-ko ES39 2100 4168 75 21 0035 2191 kontu korrontian (izen-abizenak+kintada ipiñitta).



Publi Resa
objeto publicitario

publiresa@publiresa.com

Armagin, 3-5 beheak

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

943 701 497 / 615 799 419



eta kitto!
etakitto.eus

ezagutzen dituzu gure sare sozialak?

f Twitter YouTube

Instagram gaztekitto



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

📞 **943 20 19 51** www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea



TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Wenzeslao Orbeakuak bixar ospatuko dabe auzoko jaixa



Zapatuan, egun guztian zihar egingo diran jarduerekin ospatuko dittue jaixak Wenzeslao Orbeakuak. Preparau daben programaren arabera, bestiak beste, musikia (DJ Arno eta Duo Amanecer), gastronomixa (txorizo-jana, tortillak, herri bazkarixa) eta umiendako jarduerak (jolasak, puzgarrirak, txokolate-jana...) egongo dira eta, horrekin batera, automobil klasikuen erakusketia be egingo dabe.

Aste Ekologikuari agur

Egunotan martxan egon dan Debabarreneko Aste Ekologikua domekan abiatu zan Eibarren, goiz osuan Untzagan zabalik egon zan Azoka Ekologikuearekin. Udalak, Debemenek eta Biolur alkartiak zortzigarrenez antolatu daben egitarauaren barruan, azokarekin batera, Eibar eta Elgoibarko basarrixetara bisitak egin dittue. Azoka egunian egindako argazkixak, bestalde, etakitto.eus/mediateka atalian ikusi leikez.



Burmuiña aktibatzeiko ikastarua emongo dabe Untzagan

Untzagako jubilau etxeak "Mentes despertas" ikastarua antolatu dau urrirako. Adinduko Elena Iraolagoitiak emongo daben kurtsoan parte hartzen dabenak neuronak aktibau eta burmuiña indartuko dabe, horretarako ariketa fisikak zein mentalak eginda. Klasiak urriaren 4an, 11n, 18xan eta 25ian izango dira, 16:00etatik 17:30xetara, Untzagako jubilau etxian eta Eibarko edozein jubilauk emon leike izena, 1. pisuko buleguan (Arrate). Ikastaruak 10 euro balixo dau.





Elgetako baserrian bezain zoriotsu izan zaitezela. Beti egongo zara gure artean. "Zure Kuadrila"

OIER AREITIO BLASCO



Sagar-tarta lehiaketia egingo da Sagardo Egunian

Datorren astian, urriaren 5ian, ospatuko dogu Sagardo Eguna Eibarren, eta egun horretarako antolatutakuen artian aurten be sagar-tarta lehiaketia egingo da. laz egin zan lehelengoz, Sagardo Egunaren 25. urtemugarekin bat, eta deialdixak demaseko arrakasta euki eban, 30 sagar-tarta baiño gehixago presentau zittuen eta. Hori ikusitta, ...eta kitto! Euskara Elkarteko sagardo batzordeko kidiak aurten be lehiaketia egittia pentsau dabe. Zapatu eguardixan izango da lehiaketia eta 16 ur-

tetik gorako edozeiñek hartu ahal dau parte. Tartak etxetik preparata eruan biharko dira Untzagara (parte-hartzaille bakotxak tarta bat), 12:30xetatik 13:00era bittartian, tolare aldamenian egongo dan mahaira. Tartak, gitxienez, lau raziñoquak izan biharko dira eta epai-mahaikuak presentaziñua, testura eta zaporía eukiko dittue kontuan sarixak emoterako orduan. Irabazliak egunian bertan jasoko dabe sarixa: 150 euro lehenak, 100 euro bigarrenak eta 50 euro hirugarrenak.



Epai-mahaikidiak Mireia Alonso sukaldarixa, San Andres pastelerixako Aitor Cano, Ermuko Gorrotxategi gozotegiko Maite Gorrotxategi eta Fernando Mendez (herritarren ordezkari modura) izango dira. Bestalde,


lehiaketara aurkeztutako sagar-tartak ...eta kitto! Euskara Elkartearendako izango dira. Lehiaketan parte hartziak bete biharreko baldintza honek eta epai-mahaikidien erabagixa onartzen dirala esan nahi dau.

Primerako jaixak pasau zittuen Legarren

Bederetzigarrenez ospatu dittue jaixak Legarren eta horrek antolatzen ibilli diran Arrajolape Kultur Elkartekuak oso pozik dagoz auzokuen eta jaixarekin bat egittera juandakuen erantzunarekin. Aurten, gaiñera, jaixetan egin zan graffiti erakustaldixari esker, umien parkeko hormak kolore bizixekin, bi mural ederrekin apaindu zittuen. Bestalde, errifan saritutako zenbakixak honnek dira: laugarrena, 1226; hirugarrena, 1220; bigarrena, 1094 eta lehena, 644. Jaixetako argazkixak etakitto.eus/mediateka atalian dagoz.



Jaixetan graffiti-erakustaldixa egin dabe eta bi mural margotu dittue.



URKO EGIDAZU BERRIOATEGORTUA

2019ko irailaren 18an hil zen, 43 urterekin

Gero arte, Urko.

Hire alaitasunak eta adiskidetasunak gugan diraute.

ARRATEKO ANDRA MARI ESKOLAKO HEZKUNTZA KOMUNITATEA

Egiptoko euskalduna

Bere izenari ohore egiten dio Neamak. Gustora zaudela edo zerbait gustatu zaizula adierazteko erabiltzen da Neama berba Egipton. Ba egiptoar euskaldun atsegin honekin ezin da Neama baino beste berbarik erabili. Bihotzean darama Egipto, baina Euskal Herriaz maitemindu da. Zazpi urte daramatza hemen bizitzen senarrarekin eta Asier eta Ainara seme-alabekin. “Oso pozik bizi naiz Eibarren”.

Alexandria ederretik

Alexandro Handiak k.a. 331. urtean fundatu zuen Alexandria hirian jaio zen Neama Fawzy Elsayed Abdelnaby. “Itsaso parean bizi nintzen”. Mediterraneo itsasoak bustitzen duen “hiri ederra da”, Afrikako hiririk jendetsuenetan laugarrena, historian zeresan handia eman duena eta Munduko Zazpi Mirarietako baten kokalekua (Alexandriako itsasargia). XIV. mendean gertatutako lurrikarak itsasargia suntsitu bazuen ere, Neamak ondo daki zein den bere jaioterrira heltzeko norabidea, bihotzean daramalako.

Jakintza gosea

Alexandriako liburutegia munduko handiena izan zen sasoi batean. Jakintzak berebiziko garrantzia izan du Egipton eta Neamak liburu artean pasa izan ditu bere bizitzako urterik gehienak. “Aita asko tematzen zen ikasketen kontuarekin”. Neamaren bi ahizpa ingeniariak dira, beste bat unibertsitateko irakaslea da, anaiabaita ere eta Neamak arabierako irakasle izateko ikasketak egin zituen Alexandriako unibertsitatean. “Nire familiari asko gustatzen zaio ikastea. Gurasoen etxean liburutegi handia dugu”. Titulua homologatu ondoren, hainbeste urtetan ikasitakoa hemen praktikan jartzeko gogotsu dago.

Bosy Fawzy youtuberra

Maitasunak ekarri zuen Neama Eibarrera. “Nire senarra hemen zegoen lanean eta etortzeko esaten zidan etengabe. Asko gustatzen zaio hemengo bizimodua, jendea eta paisaia”. Senarrari kasu egin zion, baina lehenengo bi urteak ez ziren oso gozoak izan. “Lagun eta familia barik negoen, zaila izan zen, baina orain nire bizitza oso polita da Eibarren. Oso jende jatorrarekin egin dut topo eta primerako harremana dut guztiekin”. Etxebizitzako bizilagunekin, adibidez, oso harreman estua du, Egipton bezala. “Nire seme-alabek amama esaten diote alboan bizi den emakumeari. Zoragarria da”. Eibarren



Urkizuko iturria ere gustoko du Neamak. Ekhi Belar

josten ikasi eta YouTuben ‘Bosy Fawzy’ (Bosy esaten diote Neamari maitasunez) kanal bat sortu zuen bere gaitasunak erakusteko. “Errezetak eta joskintza egiteaz gain, Euskal Herriko eta Egiptoko toki turistikoak erakusten ditut”. Euskal Herriko natura eta ingurunea asko gustatzen zaizkio eta idaztea asko gustatzen zaionez, istorio laburrak idazteko inspirazioa lortzen du.

Ama, ni euskalduna naiz

Euskal Herriaz maitemindu da Neama, eta Asier eta Ainara deitzen dira bere seme-alabak. “Asko gustatzen zaizkit izen euskaldunak”. Urtebete darama euskera ikasten ...eta kizzo! Euskara Elkartearen Ongi Etorri Berbetan programarekin eta Udal Euskaltegian. “Euskera izugarri gustatzen zait eta batzuek zaila dela esaten badute ere, niri ez zait zaila iruditzen”. Jendeak euskeraz egiten duenean esaten dutena ulertzen du eta seme-alabekin euskeraz abestu, jolastu eta ikasten du. “Nire semeak esaten dit bera ez dela egiptoarra, euskalduna dela”.

طسوتملا ضريبالا رجبلا سورع يه هي بردنكسال
ايندل ما يه رسم

“Alexandria Mediterraneoaren neskalaguna da.
Egipto munduaren ama da”

IKUSMEN-OHITURA OSASUNGARRIAK OPORREN BUELTARAKO

Gure begiak babesten jarraitu beharraz konturatzeko unea da; ez argitasun eta erradiazio ultramoreetatik soilik, udan egiten dugun moduan, baizik eta argi urdinarekiko gehiegizko esposiziotik ere babestu behar ditugu.

Eguneroko hainbat portaera oso barneratuak ditugu, hala nola, ordenagailu aurrean lan egitea, mugikorra begiratzeta, barneko led-argiak, telebista edo kotxeko nabigatzailea, eta ez gara konturatzen horrek guztiak eragina duela gure begietan: lehortasuna, narritadura, buruko mina eta, epe luzera, kalteak erretinan.

Gaur egun bizi dugun gainesposizio digitalaren aurrean babestea oso garrantzitsua da.

Gainera, umeak eskolara itzuli berri diren honetan, ez dugu ahaztu behar euren begiak ere zaindu egin behar ditugula. Txikien begiak heldugabe daude oraindik eta argi kaltegarrien eraginpean egoteak ondorio larriak eragin ditzake etorkizunean.

Gure seme-alabak aro digitalean jaio dira; gailu digitalak eskura izatea ohikoa da eurentzat eta beraz, gainesposizioa jasaten dute txiki-txikitatik.

**PANTAILA
DIGITALEKIKO
GAINESPOSIZIOAK
ERAGIN
DITZAKEEN
IKUSMEN
ARAZOAK BABES
EGOKIAREKIN
EKIDIN DAITEZKE**



**ARAZO BATEN
AURREAN
GAUDE?**

JARRERA OSASUNGARRIAK

Multiópticas-etik ondorengo jarrera osasungarriak gomendatzen ditugu:

- Argi egokia erabili eta pantailen distira eta kontrasteak doitu.
- Gorputz-jarrera egokia izan eta gailua distantzia egokira eduki.
- Pantaila bati begira gaudenean 30 minutuero atsedean hartu.
- Sarriago kliskatu begiak.

Horrez gainera, "inguru digitaletik" jasotzen dugun argi urdin kaltegarri kopuru altua blokeatzeko eta ikusmen-estresa murrizteko baliabideak eskaintzen ditugu Multiópticas-en:

- ⇒ **Argi urdin eta UV izpietatik babesteko** betaurreko graduatuak.
- ⇒ Ikusmen-nekea murrizten duten **ukipen-lenteak**, korneara oxigeno gehiago sartzen uzten duen materialarekin eginak.
- ⇒ Begien lehortasunari aurre egiteko **likido**-aukera handia, **begia ondo hidratatua egon dadin**.

Multiópticas-eko lantaldean zure ohitura eta premiak aztertuko ditugu eta gehien komeni zaizun soluzioa emango dizugu.



TXIKIENEN KONTSUMOA



3 UMETIK 1

3 urte bete aurretik hasten da pantailadun gailuak erabiltzen

5 URTErekin

hasten da 2 umetik 1 pantailadun gailu bat erabiltzen

9 URTErekin

jasotzen dute umeek lehenengo mugikorra

3 ORDU

pasatzen dute umeek egunero pantaila aurrean

4 ORDU

3 umetik 1ek egunero pasatzen duen denbora pantaila bati begira

EGUNEAN 4 ORDU BAINO +

egoten dira batezbeste pantaila bati begira 12 eta 17 urteko gazteak



ITURRIA: ASP



10etik 7k

begiratzen dute smartphonea lotura joan aurretik



pantaila bati begiratzen diote esnatzean



mugikorrari begiratzen diote afari batean

PANTAIEN AURREAN KONTSUMOA

**PANTAILAREN AURREAN
EGUNAK URTEAN
167**

11 ORDU EGUNEAN
pantaila baten aurrean

3tik 2k

komunera eramaten dute

2 mó/
graduatu, erreflexuen
aurkako lenteekin **99€**

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan

www.multiópticasgipuzkoa.com

Ion Fiz diseinatzaileak behin-behineko denda jarri du Toribio Etxebarria kaleko 3. zenbakian. Aurreko asteburuan zabaldu zuen eta, astean zehar itxi ondoren, gaurtik domekara berriz egongo da goizeko 11:00etatik 21:00etara. 2019ko andra-gizonen kolekzioko erropak prezio berezian egongo dira. Abenduan eta urtarrilean, bestetik, bere artxibo pribatuko bozeto, patroï eta bestelakoen erakusketa egingo du Armagintza Museoa.

ION FIZ (moda diseinatzailea):

“Tradizioa eta etorkizuna uztartzen ditut nire sorkuntzetan”

Hori da. Gainera, behin-behineko denda honetako jantziek %70 arteko deskontuak izango dituzte. Autore-jantziak erosteko modu polita da.

- Emaztegai-jantziak, gizonezkoentzako erropa, pret a porter bildumak, enprezentzako uniformeak (McDonald's, Iberdrola...), Famosa panpinentzako jantziak, osagarriak... gauza ezberdinak diseinatzen dituzu. Nola egokitzen zara gauza bakoitza egiteko?

Azken aldian denetatik egin dut. Azken finean dibertsifikazio kontua da eta etengabe dihardut ikasten. Giorgio Armanik esan zuen bezala, dibertsifikazioaren aroan gaude modaren munduan. Iristen zaizkizun eskaeren arabera egokitu egin behar duzu. Gauza berriak egin ahal izateko ikasi egin behar da eta hasieran gauzak astiro egin behar dituzu, baina egiten dudana guztia nire unibertso eta iruditeriarekin koherentea izaten saiatzen naiz.

- Nolako da zure unibertso eta iruditeria?

Alde batetik, naturalak eta oinarritzakoak, historiatik eta arlo klasikotik datozenak. Baina bestetik, diseinuei ausardia ematen saiatzen naiz. Beraz, tradizioa

eta etorkizuna uztartzen ditut nire sorkuntzetan.

- Zure ibilbidearengatik 'Premio Costura' saria jaso zenuen apirilean. Nola jasotzen dituzu horrelako esker onak?

Oso motibagarriak dira eta asko laguntzen dute aurrera egiteko. Sorkuntzaren munduan goi-goian egon zaitezke (argimahaian marraztean, pantonekin, aurreko ikerketa-lana eginda...), baina ideia horiei forma eman behar zaie eta hor sortzen dira kontu zailenak. Orduan, sariek aurrera egiten laguntzen dizute. Zerbait ikasi dudala erakusten didate, emaitza hor dagoe-lako. Bestela inork ez lidake deituko sari bat emateko. Esker onekoa naiz nire lana saritu dutenekin.

- Zein proiektu berri duzu esku artean?

Orain arte gordeta eduki dut, baina orain esan dezaket: abenduaren 13tik urtarrilaren 20ra nire artxibo pribatuko bozetoen, patroien eta abarren erakusketa egingo dut Armagintza Museoa. Ilusio berezia egiten dit, inoiz ez dudalako 2002tik 2019ra sortutako bozetoen eta jantzien erakusketa egin. Gainera, bozeto asko Eibarren sortuak izan dira: parkeetan, pasealekuetan, Arraten... Eibar barrenean daramat beti.

- Zuk diseinatutako jantziak salgai jarri dituzu behin-behineko dendan Eibarren. Zer aurkitu dezakegu?

2019ko udaberri eta udako kolekzioko jantziak egongo dira, eta baita udazken eta neguko batzuk ere. Gizonezkoei dagokienez, jantzi informalak aurkitu daitezke (poloak, kamisetak eta jertseak). Gainerakoa emakumeentzakoak dira: ehun arinak, lisoak, lihozko jantziak, artilezkoak, teila kolorezkoak, berde-ilunak, itsas urdinak, gau-jantziak, lentejuelak, bordatuak, esko-teak, mahuka asimetrikoak, jantzi gorriak... Eta baita zapata, poltsa eta betaurrekoen bildumak ere.

- Sarritan egiten dituzu behin-behineko salmenta hauek?

Eibarren lehen aldia da, baina Bilbon, Madrilan etaartzelona egin izan ditut. Jantzi-bildumak kalera ateratzeko eta herritarrengana hurbiltzeko balio dute horrelako salmentek, eta beste erosketa esperientzia bat eskaintzen dute. Ondo dago internet bidez erostea, baina hau ezberdina da.

- Zure mailako diseinatzaileek egiten dituzten jantziak eskuragarriago daude modu honetan?



Euskal Herriko Sexu Heziketa eskolak "SEXU HEZIKETAN BEGIRALEA, HEZKIDETZA ETA ANIZTASUNA" ikastaroa sortu du, Izanez elkartearekin batera. Urrian hasi eta ekainean amaituko da. Ikastaroa 150 ordukoa izango da, Arrasaten. Helburua sexologia zientzia jendearengana hurbiltzea eta sexualitatea balore gisa lantzeko ideia berrien gainean lan egitea da. Ikastaroaz gehiago jakiteko Amaia Urrejola psikologo eta badago sexologo eibartarrarekin eta Mikel Oribe sexologo eta genero-indarkerian aditu bilbotarrarekin egon gara. Oraindik izena emateko aukera. Eibartik joan nahi dutenentzako %10eko deskontua egongo da. Informazio gehiago (www.ehshe.com / 946 026 190)

MIKEL ORIBE eta AMAIA URREJOLA (Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolako kideak):



"Sexualitatea balore gisa lantzeko ideia berriak sustatuko ditugu Arrasaten egingo dugun ikastaroan"

- Zein da Euskal Herriko Sexu Heziketa eskolan egiten duzuen lana?

2007an Bilbon sortu genuen irabazi asmorik gabeko Kooperatiba da. Sexologian adituak gara eta Euskadi mailan egiten dugu lan. Ikastetxeetan ikasle, irakasle eta gurasoentzako sexu heziketa eskaintzen dugu eta, horrez gain, terapiak eta genero-indarkeriren prebentzio ikastaroak ere ematen ditugu. Laster hasiko dugun ikastaro berri hau Izanez sexualitate antizak zaintzeko eta lantzeko euskal elkartearekin batera antolatu dugu.

- Eibartik nahiko gertu, Arrasaten emango duzue "Sexu heziketan begiralea, hezkidetza eta aniztasuna" ikastaroa. Zer eskainiko duzue?

150 orduko ikastaroa izango da, eta euskeraz. Guztira 10 asteburutan emango da, hilean asteburu batean: larunbat osoa, 10:00etatik 20:00etara, eta igande goiza. Helburua sexologia zientzia jendearengana gerturatzea izango da. Ez da sexologiko master bat, askoz ere praktikoagoa izango da, eta eduki gutxiago izango ditu. Horrekin esan nahi dugu jendeak bere lanbideetan erabili ahal izango duela. Kuriositatea daukatenek edo sexu heziketan jardun nahi dutenek ere egin dezakete, nahiz eta oraindik ogibiderik ez izan. Sexologiarekin lehen harremana izateko oso egokia da. Aurrez aurreko 120 ordu izango dira, eta 30 ordu online. Lanak egin beharko di-

ra eta nahi dutenentzat praktikak egiteko aukera egongo da.

- Beraz, ikasitakoa lanbide edo egoera desberdinetarako baliogarria izango da.

Era askotako jendearentzat izan daitete, sexualitatearekiko interesa daukaten guztientzat eta pertonekin lan egiten duten guztientzat. Ume, nerabe, heldu edo zaharrek lan egite dutenek sexualitatearen eremura hurbiltzen direnean askotan ez dakite zer egin eta gaia ekiditu, ezeztatu egiten dute. Esate baterako, erresidentzietako zaintzaile eta hezitzaileek sexualitatea zahar etxeetan nola landu ikasiko dute; edo nerabeen udalekuetako begiraleek zer egin behar duten sexuarekin lotutako egoerak sortzen direnean. Irakasleentzat ere oso aproposa da, egunerokotasunean ikasleekin gaia tratatzeko erramintak emango zaizkielako. Beraz, pertonekin tratatzen duten guztiek euren egunerokotasunean gai hau modu profesional batean txertatzeko erremintak barneratuko dituzte.

- Zer aurkituko dute ikastaroan?

Ezagupen, baliabide eta gaitasun teoriko zein praktikoak lortuko dituzte. Horretarako ikusentzunezko dinamikak egongo dira, jokoek baliatuko gara eta eztabaidak oso inportanteak izango dira. Ikasi ditugun gauza mordo "desikastea" ezinbestekoa da, hau da, sexuaren inguruan barneratu ditugun ideia, sinesmen eta eskema mentalak deseraiki behar ditugu, guzti horren oinarrian sexuaren inguruko ideia desegokiak daude eta. Ideia horiek guztiz kaltegarriak dira, sexua arriskutsua eta zikina dela sinestarazten digutelako, eta guztiz kontrakoa da. Kultibatu beharreko balorea da. Sexua "purgatu" egin behar dugu.

- Gaiak nola banatu dituzue?

Gaiak nahastuta emango ditugu, baina 5 bloke edo arlo nagusi izango dira: sexologia (episteme sexologikoa eta sexu pedagogia), hezkidetza, sexualitate antizak (aniztasun funtzionalaz eta kultur artekotasanaz hitz egingo dugu), gorputzak eta emozioak, eta sexualitatea aro digitalean.

- Zeintzuk gidatuko duzue ikastaroa?

Sexologoak gara ikastaroa emango dugunak, baina gutaz aparte sexologian adituak diren laguntzaile asko egongo dira, esate baterako Munduko Medikuek, Bizigay, HIE-SAren kontrako T4 eta Sidalava elkarteak, urritasun fisikoa dutenen elkarte, Errespetuz transexualen elkarte edo Naizen ume transexualen familien elkarte.





Pensiñuen aldeko burrukek ez dau indarrik galtzen

Asteleheneroko hitzordua aprobetxaututa, han batutakueri hainbat puntu gogora ekarri zetsazen plataformako ordezkariak. Hasteko, urriaren 1a Pertsona Nagusixen Nazioarteko Eguna izango dala eta, Gipuzkoako nagusixen alkartiak horren harira antolatzen dituenekin bat egingo dabela aurreratu eben: "Plataforma moduan egun horrekin bat egitten dogu eta jendiari deittu nahi detsagu urriaren 1ian Eibarren, Untzagatik hasitta, Pertsona Nagusixen Nazioarteko Egunaren harira egingo dan manifestaziñora juateko, nagusixen eskubidiak aldarrikatzera: pensiño duiñak, Gizarte Zerbitzu nahikuak, andra eta gizon alargunen arazuak, bakardade arazuak, koordinketia, genero-arrakala... Hortaz, astelehengan, 12:00xetan, konzentraziñua egingo da,

betiko moduan, eta martitzegian, barriz, 12:00xetan hasiko da manifestaziñua".

Horrekin batera, Gipuzkoako zahar etxietan, bihargiñak atzera be greba deittu dabela ekarri eben gogora, nagusixak izan arren pertsonak dirala, eta ez objektuak azpimarratuta. Euren berbetan, "irakorri dogu Gipuzkoako zahar etxietako bihargiñak atzera be greba deittu dabela. Itxuria, negoziaziñuan ez dabe ezer konpondu. Hilliak daroiat greba egitten eta, hortaz, egoitzetan daguzeneri emoten jakuen arreta gero eta eskasagua da. Bihargiñak, gehixenak andrak, luzaruan dihardue soldatak igotzeko eskatzen, baiña inportantia da baita be jubilaziñuengaittik edo egoiliar barrixak sartziagaittik sortutako lan-karga gestio-natzia, bihargin gehixago kontratauta. Ezin leike izan pertsonal berberarekin arreta bera

emotia, horrek derrigorrez eragiten detsa egoitzetan eskintzen dan arretaren kalidadiari. Horregaittik, Plataforman bat egitten dogu bihargiñen aldarrikapenekin, solidarixuak garalako eta, gaiñera, hamendik aurrerako gure bizi-aldixa euren eskuetan dagualako. Adi egongo gara, hortaz, egitten

daben mugimendu bakotxarekin. Ez deigun ahaztu zerbitzu horretara jotzen dogunian Udalarekin edo Diputaziñuarekin jarduten dogula, ez dogu berba egitten zerbitzuak azpikontratzen dittuen kanpoko enpresekin. Beraz, erakunde publikuen arduria da arazo hori konpontzia".



Datorren astian konzentraziñua eta manifestaziñua egingo dira.

2018ko urtarrillaren 15etik astero egin daben moduan, astelehen honetan be pensiño publiko eta duiñak eskatzeko konzentraziñua egin eben Eibarko pentsiodun eta jubilauren plataformakuak, 12:00xetan Untzaga plazan. Asteroko konzentraziñuetan eskatzen dabena oso berba gitxitan laburbildu leike: pensiño publiko duiñak. Halanda be, hori lortzeko bidia luzia ez eze nekeza be bada. Baiña lehelengo egunetik argi laga nahi izan eben moduan, behin burrukan hasitta jubilauak ez dagoz atzera egitteko prest: asteroko mobilizaziñuetan beti esaten daben moduan, ez dabe etsiko, eskatzen dabena lortu arte.

Madrilgo manifestaziórako autobusa

Eta modu berezixan gogoratu eben euskal pentsiodunak astelehenian Bilbon hasi eben eta Madrillera ailegauko dan martxa: *"Hantxe dago Begoña Vesga gure lagun eta plataformako kidea. Estaduko jubilatuen koordinadora eta plataforma ezberdiñak manifestaziño handi bat antolatu dabe Madrillen, urriaren 16rako, eta juan nahi dabenendako autobusa antolatzen gabiz, Eibartik"*. Azaldutakuaren arabera, autobusa Eibartik urtengo da, goizaldeko 03:00ak edo 04:00ak inguruan eta Madrillen, Sol enparantzan alkartuko dira, handik 11:00etan Diputauen Kongresurairi juango dan manifestaziñua parte hartzeko. Eibarrera buelta 14:30xak aldera izango da eta bidian Lerman geratuko dira, tarte batian atseden hartzeko. Preziua 30/40 eurokoa izango dala aurreikusi dabe eta interesa dakenak 637 122 126 telefonora deittu biharko dabe, astelehenerako, izen-abizenak, telefonua eta herrixa emoateko (14:00xetatik 18:00etara bittartian deitzeko eskatu dabe). Horrekin batera, Gipuzkoako Nagusi eta Pentsiodunen Elkartearen Plataformak irailaren 19xan egindako bilkuran hartutako erabagixen barri emon eben: lehenik eta behin, *"gaur egun kaltetuena dan andra pentsiodunen kolektibuari babesa azaltzia, euren parte-hartze aktibo barik mugimendu*

**Eibartik
Madrillera
juateko
autobusa
antolatzen
dabiltza.
Izena emoteko
637 122 126
telefono
zenbakira
deittu bihar da**



400 kilometro oiñez, pensiñuen aldeko martxan

Astelehenian urten ziran Bilbotik, Madrillerako bidian, 30 bat pentsiodun, tartian **Begoña Vesga eibartarra**. 1992xan Bizkaiko Labe Garaien eta Asturiasko Ensidesaren itxieren kontra bihargiñak egindako "Burdinaren Martxa" goguan, honek be 400 kilometroko bidia oiñez egingo dabe, pensiño publikuen alde. Bilbotik urten zan taldiak martxaren iparraldeko zutabia osatzen dau. Izan be, egun batzuk aurretik, Rotatik (Andaluzia) beste talde bat abiatu zan, asmo eta helburu berberak bultzatuta. Urriaren 15ian zutabe bixak Madrillen bat egingo dabe eta hurrengo egunian izango da pensiñuen alde Sol plazatik Diputauen Kongresura bittartian egingo dan manifestaziñua. Dagoeneko estatu osoko 250 pentsiodunen plataformak egin dabe bat Espainiako hiriburuan egingo dan mobilizaziñuarekin.

Astelehenero ehun bat pentsiodun alkartzen dira pensiño publiko duiñak eskatzeko.

honek ez leukielako eukiko dakan garrantzixa ezta sendotasuna be". Bigarren puntuan, barriz, zahartzaro aktibuen aldeko eskaeria jaso dabe: "Urriaren 1ian, Pertsona Nagusixen Nazioarteko Egunian, Pentsiodunen Mugimenduak, pensiño duiñak aldarrikatziaz gain, instituziño publikueri (Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundieri eta Udaleri) dependentzia eta zaintzarako kalidazeko zerbitzu publikuak eskatuko detsez, baita zahartzaro osasungarri eta aktiborako politika publikuak be". Eta hartutako hirugarren erabagixa "mugimendu sozialekin eta sindikatuarekin batera udazkeneko Mobilizaziño Egundian parte hartzia" litzake. Izan be, euren berbetan, "kolektibo desberdiñak bizi dittugun egoera prekario guztieri galga ipiñi ahal izateko, biharrezkua da ahaegiñak bateratzia eta herritar guztiak mobilizatzia. Horregaittik, herritar guztieri dei egitten detsagu gure kale eta plazetan alkarrataratzeko, gure aldarrikapenak eskuratzeko eta pentsiodunok gure bizitzaren azken tartian duintasunez bizitzia lortzeko, hain zuzen be".

Ford Fiesta zaharra hartu eta itzultzeko asmo barik bidaiatzeko erabakia hartu zuen 2018ko urrian Mikel Quinak. Ura txakurrarekin Europan zehar hilabete eta erdi egin ondoren *Shaolin Temple Europera* iritsi zen abenduan, Alemaniako basoan dagoen tenplura. Hamar hilabete inguru daramatza han guztiz markatu dion bizimodua aurrera eramaten eta denbora luzez geratzeko asmoa dauka. trotamundogs.com webgunean bere abenturaren nondik norakoak eta argazki ederrak aurki ditzakezue.



MIKEL QUINA:

“Esperientzia paregabe hau gozatu eta xurgatzea tokatzen zait”

- Ford Fiesta zahar batekin irten zinen Eibartik bidaiatzeko asmoz. Zerk bultzatu zintuen?

Orain dela urte asko Latinoamerikara joan nintzen bost hilabete eta gehiago bidaiatzeko beharra sentitu nuen, baina itzulerako txartel barik. Beraz, berarengatik inork apustu egingo ez zuen auto klasiko honekin irten nintzen Eibarrera itzultzeko asmo barik.

- Nolako bidea egin behar izan zenuen Shaolin tenplura iristeko?

Luzea. 2018ko urriaren 30ean Eibartik irten nintzen eta uste dut abenduaren 11an

iritsi nintzela tenplura. Hiru aste Paula Zabala lagun eibartarraren etxean egon nintzen Bartzelonan eta nire armairuko erropa gehiena saldu nuen hainbat merkatutan. Handik Frantziara joan nintzen eta Machu Picchun ezagututako lagun zaharrak bisitatu nituen. Gainera, *Couchsurfing*a egin nuen birritan eta esperientzia honek beste pare bat lagun on eskaini dizkidala uste dut. Hilabete biziak izan ziren *Ford Fiesta* zaharraren barruan.

- Hasieratik zenekien tenplura joango zinela edo aukera bidean joan zitzazun sortzen?

Udatik nekien hara joango nintzela. *Workaway* webgunearen bitartez aurkitu nuen. Langileak behar dituen eta lana bilatzen duen jendea kontaktuan jartzen ditu, janari eta ostatu truke lan-zerbitzuak eskainiz. Hasieran Europako iparraldeko herrialde bateko eskola edo baserri batean lan egiteko asmoa nuen, baina bilatzailean ‘tai-xi’ berba jarri eta *Shaolin Temple Europe* agertu zitzaidan. Animalai-zaintzaile bila zebiltzan eta ez nuen birritan pentsatu. Eskaera egin eta hautatu egin ninduten.

- Hilabeteak daramatzazu tenpluan. Zer aurkitu duzu?

Gorenaldian eta hazkunde betean dagoen proiektu interesgarri bat aurkitu dut. *YouTube*ko bideoei, sare sozialei eta baso erdian duen kokaleku pribilegiatuari esker (Frankfurtoko aireportutik ordubetera dago) mundu guztiko jendea etortzen da *Shaolin Temple Europera* milaka urte dituen kultura hau ezagutzeko. Niretzat oso inpaktu handi eta onuragarria da budismoari, Kung Fu-ari edo Txinako medikuntza tradizionalari buruz hainbeste dakien jendea aurkitzea edo erekin bititzea.

“Eibar FT-ri buruz egin beharrean, Qi-ari buruz egiten dugu berba hemen”



Kung Fu-a eta meditazioa egin daitezke, besteak beste, Shaolin Temple Europan.

- **Nolakoa da zure egunerokoa?**

8:00ak aldera esnatzen naiz, ordubete *Qi-gonga* egiten dut nire kabuz eta 9:00etatik 11:00etara budismoari edo Txinako historiari (besteak beste) buruzko klase teorikoak jasotzen ditut. 11:00etatik 13:00etara txakurrekin egiten dut lan. Lehenik Ura eta beste txakur birekin pasioa egiten dut eta, gero, 6 kilometro egiten ditut antxitxiketan Ura eta beste txakur batekin. Amaitzerakoan orraztu egiten ditut eta eurekin jolasten dut 13:00etara arte, bazkalordua delako. 15:00ak arte libre izaten dugu eta tea hartzen lasaitzen gara. 15:00etan entrenamendua egoten da eta batzuetan parte hartzen dut, baina beste batzuetan bideoak editatzen jarraitzen dut. 17:00etan animaliei jaten ematen diet eta berriz pasiatzen dut txakurrekin. 18:00etan afaldu eta 19:00etan *Qigonga* egiten dugu. Ondoren denbora libre izaten dugu, baina editatzen edo gauzak prestatzen egoten naiz, lan asko dagoelako egiteko hemen.

- **Nolakoa da zurekin bizi den jendea?**

Geure modukoak dira. Hemen hirietako zarata eta presatik urrun gaude eta horregatik pixka bat ezberdina du, baina jendea oso normala da berez. Kontua da Eibar FT-ri buruz berba egin beharrean Qi-ari (bizi-energiaren fluxua) buruz egiten dela berba. Qi-ari, tendoiei edo faszia-ri buruz gabiz berbetan beti, edo nola izan gaitezkeen kontzienteago edo errukitasuna nola landu daitezkeen, adibidez. Gai hauek dira hemen gehien lantzen direnak eta denek puntu berera eramaten gaituzte: meditazioa eta *mindfulness*. Hau da, norberaren bizitzaren momentu bakoitzaz jabetzea, depresioa edo estresa eragin ahal dizuten pentsamendu-itsaso batean ez galtzeko. Horrek ez du esan nahi hemen ez garelako tristetzen edo haserretzen, baina azkarrago pasatzen zaigu gertatuko dena errazago ikusten dugulako. Ez daukagu beste ezertan pentsatu beharrik.

- **Nola sortu zen tenplua?**

Laburpena eginez, 80. hamarkadan modan jarri ziren ekialdeko pelikulengatik. Europar *Kung Fu* eskola txikiak zabaldu ziren eta ekialdeko kulturari buruzko interesa izugarri igo zen. Mundu guztian daude tenplu budistak eta Shaolinak, baita Madrilen ere. Tenplu hau basoan dago eta bizitzeaz gain nobiziotzak egin daitezke hemen, hau da, monjea izateko prestatu. Hemengo abadeak eta *Shifuak* sortu zuten *Shaolin Temple Europea*. Abadea budismora pasa zen apaiz protestante ohi bat da eta *Shifua* arte martziala munduko irakasle onenetako bat. Abadeak budismoa, taoismoa eta konfuzia-

Shifu
maiteminduta
dauka Urak.



“Harrigarria da nola
konektatzen duten
budismoak eta *Kung Fu*-ak”

nismoa ikasi zituen *Shaolin* monje batekin, eta leinu horri esker *Shaolin* monjea da. *Shifu*, bestalde, *Shaolin* oinarriak dituzten arte martzial ezberdinak ikasi zituen.

- **Zer egin daiteke bertan?**

Lan asko, oso ondo jan (begetarianoa), *Kung Fu*-a eta meditazioa, batez ere. Azken bi disziplina hauek asko hartzen dute bere baitan eta harrigarria da nola konektatzen duten budismoak eta *Kung Fu*-ak. Kontraesankorra dirudi, baina zentzu handia du.

- **Trotamundogs webgunean zure bidaia- ren berri ematen duzu. Familia eta lagu- nekin konektatuta egoteko modua da?**

Bai. Hasieran nire bidaia kontatzeko sortu nuen webgunea, baina blogean baliozko zerbait eskaini nahi nuen eta txakurrekin bidaiatzeari buruz berba egin, horregatik jarri nion *Trotamundogs* izena (dog berbak txakurra esan nahi du ingelesez). Gaur egun

txakurren kontua albo batera utzita daukat, nahiz eta tenpluan lau artzain-txakur alemanekin lan egiten dudana. Beraz, hemen bizi dudana esperientziari buruz idazten dut mundu *Shaolina* eta budista zer diren azalduz. Artikulu gehiago idaztea gustatuko litzaidake, baina ez dut denborarik. Uste dut astebeteko oporraldia hartu behar dudala libretan dudana idazteko.

- **Zer moduz dago Ura?**

Ura da ondoen dagoena, zalantza barik. Lehen asteak korapiltsuak izan ziren, zaila delako lau artzain-txakur alemanen eremuan sartzea. Gogor eta pazientziarekin egin genuen lan eurek Ura onartzeko eta bi astetan hartu zutela ikusi genuen. Hortik aurrera hemengo erregina bihurtu zen. *Shifu* maiteminduta dauka eta hemengo *sheriff*etako bat poltsikoan edukitzeak pribilegio asko ematen dizkizu. Urak zuen beste “arazo” bat zen pertsonekin nolabaiteko trauma zuela eta ez zela jendeaz asko fidatzen. Hemen hamar hilabete pasa eta jende askoren bisita jaso ondoren gizakiarekiko beldurrak hor jarraitzen du, baina orain beste gauza bat da. Mesfidati agertzen da hasieran, baina bizkor pasatzen zaio *frisbee*a erakutsiz gero. Bestela, naturan libre bizi da, pasioak eta arietak egiten ditu egunero eta ez zaio maitasunik falta. Beraz, zoragarri dago.

- **Nola jarraituko du zure abenturak?**

Ez dut idearik ere. Momentuz hemen jarraituko dut denbora luzez. Oso pozik nago, bai alde budista eta *Shaolinarekin*, bai hemengo garatzen dihardudan argazkilaritza eta bideogintza aldearekin. Nire etorkizun pertsonal eta laboralarentzat oso baliagarriak izan daitezkeen gauza asko ikasteko toki egokian nagoela uste dut. Hala ere, ekialdeko maisu asko pasatzen da hemendik eta Asiak nire atea jotzen du etengabe. Ikusiko dugu etorkizunean zer gertatzen den, asko falta da oraindik. Momentuz bizitzen ari naizen esperientzia paregabe hau gozatzen eta xurgatzen jarraitzea tokatzen zait.

*koldo edorta carranza*

Alfonbra gorriko nazioarteko izarrak izar, poztekoa da Zinemaldia euskal sorkuntzaren arnasmune izaten jarraitzea; eta gu turista sentitu gabe

Gertuko Zinemaldia

Zinemaldian nago, bertako giroari buruz zuzenean idazteko asmoz. Etxean inprimatutako sarrera baten atzeko partean jaso ditut hitzok. Jatetxe parean film baten afixa erraldoiak daude, eta atsedean hartzeko unean ere jaialdiaren barnean nagoela gogorazten didate. Halakoak dira ekitaldiok, adi-adi egon behar duzu uneoro, bestela zerbait garrantzitsua galdu dezakezu: aktore famaturen bat, kazetarien elkarrizketak, edota fan sutsuen garrasi ozenak. Esaterako, goizean, Euskal Zinemaren Irizar Sariko epaimahaikideen presidentea begiztatu dut, bere lankideekin solasean, Urumea ibaiaren alboan. Berarengandik hurbil, ez zegoen ez bizkartzainik, ez *paparazzi* kuxkuxerorik. Geroago, Kursaalaren aldamenean, *Loreak* eta *Handiaren* zuzendariak ikusi ditut, jendea-

rekin argazkiak ateratzen. Ondoren, herritarrez inguratuz, *Paseko Txoriak* tokiko dokumentalaren estreinaldira joan naiz. Bertan filmeko talde teknikoak ikus-entzuleen galderei erantzun die, naturaltasun osoz. Juanmi Gutierrez zinemagile zendua azken lana izan zenez, nabaritzen zen lagunez eta jarraitzaileez beterik zegoela aretoa. Azkenik, euskal telebistako eta zinemako aurpegi ezagunekin topatu naiz tabernetan, **VIP** geletan sartu beharrik gabe. Horrelakoa da gure zinemagintza: gertukoa eta azakeria gutxikoa. Alfonbra gorriko nazioarteko izarrak izar, poztekoa da Zinemaldia euskal sorkuntzaren arnasmune izaten jarraitzea. Hala den neurrian, horren hitzordu ospetsuan ez gara sekula turista arrotzak sentituko.

*jon mikel mujika*

Naukas Bilbao izeneko zientzia-dibulgazio ekitaldiak jaso duen oihartzuna ikusita, pentsatu beharko genuke nori jarri alfonbra gorriak

Naukas

Azken egunetan, Urumea aldera begira jarri gaituzte komunikabideek. 67 urte Donostiako Zinemaldia ari da ospatzen aste honetan. Irrati, egunkari eta telebista, egunero ari dira zinema jaialdiko xehetasunez beteriko kronikak egiten; elkarrizketak, trailerrak, aurkezpenak... Eta kronika horietako gehienek, puntu bera daukate ardatz: zine izarrak.

Erakusten digute Penelope Cruz Maria Cristina hoteleko sarrean esmokin duna txofer batek gidatutako luxuzko auto batetik iristen, eta kontatzen digute Donald Sutherlandek Arzakenean angelak bazkaldu dituela.

Bitartean, foku hauek guztietatik urruti, A8-aren beste puntan,

oharkabean igaro da 2011tik hona urtero antolatzen den Naukas Bilbao izeneko zientzia-dibulgazio ekitaldia. Bertan, arlo desberdinetako zientzialariek hamarnaka hitzaldi eman dituzte eta Euskalduna jauregia jendez lepo bete dute lau egunetan.

Egari zor, EITB-k eskaini dio ekitaldi honi tartetxoa, bere 4. kanalean bada ere, eta nahi baduzue web-eko Nahieran atalean eskuragarri dituzue hitzaldi guztiak. Baina kamerarik gabe, laborategietan eta sarri baldintza prekarioetan lan egiten duten aktore sekundario hauek merezi dute daukatena baino paper nagusiago bat gure gizartean. Agian hobeto pentsatu beharko genuke non eta nori jartzen dizkiogun alfonbra gorriak.

gazteON



Emakumearen aurkako indarkeria genero-desberdintasunaren eta -diskriminazioaren adierazpen larrienetakoa da. Izan ere, genero-indarkeriak munduan minbiziak, malariak, gerrek eta auto-istripuek baino emakume gehiago hiltzen ditu.

Definiziora jota, genero-bortizkeria da emakumearen kontra, emakume izate hutsagatik, gauzatzen den edozein biolentzia-jarrera, kalte fisikoa, sexuala edota psikologikoa eragiten duena.

Datuei erreparatu besterik ez dago errealitatea zein gordina den antzemateko: munduan, 15 segundoro emakume bat erasotzen dute. Espainian, 2019an, genero-bortizkeriak 42 andrazko hil ditu; eta, gurera etorrita, Hego Euskal Herrian, urtearen lehen hiruhilekoan 1.407 salaketa jarri dira, egunean 15, alegia. Eta gauza jakina da ez direla eraso guztiak salatzen, beraz, kopurua handiagoa da eta egoera latzagoa.

Genero-indarkeria

Zer diote mahainguruko kideek?




“Badirudi memoriarik gabeko herria garela, memoriarik gabeko herria kondematuta baitago iraganeko bortizkeria erreproduzitzera”

Amaia Urrejola
Sexu-hezitzailea eta sexu-terapeuta



“Letra feministak dituzten abestien aldeko apustu bat egingo dugu; herriko jaietara ekarriko ditugu, zapatu gauetan tabernetan entzungo ditugu... musika oso boteretsua da”

Uxue Igarza
Militante feminista



“Gaur egungo abestien letrak debekatzea adierazpen askatasuna ukatzea dela iruditzen zait. Ikasi egin behar dugu letra horiek abesti hutsak direla, eta ez ditugula zertan interpretatu”

Jessica Ots
Gehitu taldeko kidea



“Benetako hezkuntza etxean dago, ezin dira ardura guztiak irakaskuntzaren gain utzi, gurasoek ere lan handia daukate egiteke etxeetan”

Jurgin Landa
18 urteko gaztea

Maitasunagatik ez diozu ezeri ezetz esan behar, ez zure zaletasunei, ez zure lagunei, ez zure gaitasunei. Maitasunak gehitu egin behar du, ez kendu.

Azken urteotan berdintasunaren mesedetan urrats nabarmenak eman badira ere, genero-bortizkeria arazo sozial global eta estrukturala dela esan dezakegu. Hori horrela, arazoari errotik heltzeko, jatorrira jo beharra dago, baina ez da erraza zergatiak zehaztea, arrazoi anitz ezkututzen dira-eta gatazkaren atzean. Batetik, dugun gizarte-antolamenduak ez du batere laguntzen; aitzitik, arazoaren oinarrian patriarkatua dago, alegia, gizonek emakumeekiko boterean eta gailentasunean oinarritutako eredu soziokulturala.

Ildo horretatik, sexu-hezitzailea den **Amaia Urrejolak** honela diosku: “eskoletan historian zehar sexuen arteko elkarbizitza errealak zein izan den ikastea funtsezkoa da. Azkenean emakumeok hiru mende daramatzagu pertsona izaten; hortaz, hemezortzi mendean ez gara pertsonak izan, ob-

jektuak baizik. Lorpen hori, pertsona izaten hasteara, mugimendu feministari esker izan da. Kontua da hori ez dugula ikasten eskoletan, eta funtsezkoa da hori jakitea; ez da izan demokraziari esker. Era berean, emakumeok ere sexua daukagula kontsideratzea mugimendu horren lorpena izan da. Arazo eta gaitz honen atzean dagoen zergati eta arrazoi estruktural honekin apurtzeko jakin behar dugu non dauden benetan oinarriak, eta hor eskola sartzen da ezinbestean”.

Uxue Igarza militante feministaren iritziz, badaukagu datuei heltzeko joera bat, eta argi dago beharrezkoa dela kontabilizatze hori. Baina badago horren atzean, bere ustez oso garrantzitsua den indarkeria sinboliko bat, ezin dena ikusi, ezin dena ia igarri ere egin, oso oharkabean pasatzen dena, eta Uxueren iritziz benetan identifikatzen badugu funtsezko tresna izango

da sistema osoa eraldatzeko. Gakoa indarkeria sinboliko horretan dagoela diosku.

Sare sozialak eta maitasun erromantikoa

Bestetik, DISNEY maitasuna edo maitasun erromantikoa ere aipatzen da arazoaren iturburu moduan. Maitasun eredu hau mendebaldeko kulturaren nagusi dugu, eta hiru ezaugarri arriskutsu ditu: betierekotasuna, heterosexualitatea eta eksklusibitatea. Horretaz gain, mendekotasunean oinarritzen da, eta beste pertsona norbere jabetza balitz bezala ikustera garamatza. Ikuspegi horrek ez ditu aintzat hartzen berdintasunean oinarritutako harremanak eta oso egoera bidegabeak eragiten ditu. Uxueren hitzak dira honakoak: “Disney maitasuna aipatzea gustatuko litzaidake, betiko maitasun topikoetan errotzen dena, maitasun toxikoetan, eta horiek dira

guk ditugun erreferenteak: telebistan ikusten ditugunak, liburuetan irakurtzen ditugunak, txiki-txikitik erreferente izan ditugunak... Eta beste alde batetik, uste dut lehen esan dudana bezala, sistema heteropatrialka garai berrietara moldatzen dela; bada, orain sare sozialez baliatzen da. Sare sozialek aukera ematen dute kontrola aragotzeko, eta horri Disney maitasuna gehitzen badiogu, emaitza kontrola da, harreman toxikoak, bortitzak".

Hala ere, sare sozialen alde ona ere nabarmentzen du sexologoak: "Egia da hein handi baten sare sozialen aldeko apustua egitea gustatuko litzaidakeela, badagoelako erabilera egoki bat, zeinari esker borroka feministak ere onurak dituen: badaukagu saretze bat, badaukagu informatzeko iturria, erreferente berriak bilatzeko aukera. Beraz, gakoa sare sozialen erabilera egokia da". Uxue ere iritzi berekoa da: "Sare sozialek ematen dute izugarriko aukera inoiz baino gehiago bestea kontrolatzeko, baina egia da erabilera egokia eginez gero, oso erabilgarriak eta lagungarriak direla, kontzientziazio maila asko handitu bada, sare sozialei esker izan da".

Era berean, kontrakoa pentsa badaiteteke ere, gazteen artean ere gero eta ohikoagoa da genero-bortizkeria. Sare sozialak aipatu ditugu, batetik, eta bestetik, gazteen ispilu diren inguruko nagusien eredu aipatu beharra dago. Amaiak argi dauka: gazteen artean indarkeria badago, helduen artean dagoelako da. Azkenean, gazteen erreferenteak helduak direlako. Beraz, helduen artean gaitz hau ez bada eteten, gazteek erreproduzitzera joko dute, gazteek helduak imitatzen dituztelako.

Musikaren indarra

Modako kanten letrek, bestalde, talka egiten dute indarkeriari aurre egiteko

egiten diren borroka guztiekin, eta horrek arazoa korapilatu baino ez du egiten. Kontua muturrera eramaten dela dioenik ere badago, baina Uxuek horrela dio "Indarkeria transmititzen duten letra bortitzak ez genituzke onartu beharko. Bilboko jaietako adibidea ipiniko dut, ez dut uste musika hori debekatzea zentzura denik, ezta adierazpen askatasunari uko egitea denik ere, uste dut emakumeon kontrako indarkeriaren adibide garbi bat dela, diru publikoz eta espazio publiko baten aurrera ateratzera zihoana. Ni ez naiz espazio pribatuetan zer musika entzun behar den esatera sartuko, baina uste dut horrelako mezuak ezin direla onartu. Mezu naziak edo faxistak izango balira, ez lirateke onartuko. Zergatik onartzen dira emakumeen kontra doazen letrak? Hori kriston barne gatazka daukat eta haserrea: Bilboko kasu horrek guztiz harrituta laga ninduen, batez ere Euskal Herriko kulturazale eta adituen komentarioak irakurri eta gero, ziotenak hori adierazpen askatasunaren aurka joatea dela. Bestetik, egia da betidanik egon direla horrelako abestiak, eta betidanik egon dira euskal tradizioan ere bai, abesti herrikoietan eta abar. Musika jendarte oso baten espresioa da, ezin da moldatu, jendarte batek pentsatzen duena da, musikara bideratuta, orduan hor, noski, denetik dago. Baina nik gure erreferenteak indartuko nituzke, badaude mila musika talde letra feministekin emakumeak ahalduzuzeko, LGTI kolektiboaren aldeko musika taldeak... ba bueno, egingo dugu horren aldeko apustu bat, ekarriko ditugu horrek herriko jaietara, jarriko ditugu horrek zapatu gabetan tabernetan... Ados, jendeak ez ditu ezagutzen, lehenengo gauean ez behintzat, bigarrenean agian bai, agian horri esker hasiko gara hori entzuten eta besteak alde batera lagako ditugu. Musikak herri bateko hezkuntzarako balio duela uste dut, eta

ideiak aldatzeko, musika oso boteretsua da, beti izan da."

Debekua eraginkorra ote?

Debekatzea eragingarria den ere eztabaida iturri bihurtu da. Amaia iritzi "patriarkatuaren aliatu nagusienetakoa merkatu kapitalista da, eta eurek daukate boterea. Orduan, bonbardeoa izugarria da, baina ni debekuaren debekuaren aldekoa naiz, baina argi dago zentzuzko kriterio bat eduki behar dela, hau da, diru publiko ezin dugu erabili horrelako letrak abesten dituen abeslaria kontratatzeko, hori argi eduki behar dugu. Baina nik uste dut batzuetan entzuleak infantilizatzen ditugula, eta oso paternalistak gara. Benetan egin behar duguna entzuleen kritikotasuna suspertzen laguntzea da, hau da, letra matxistak dituen abesti bat entzun eta mezu esplizituak eta inplizituak filtratzeko gai banaiz, ba listo, horrekin nahikoa da, eta nik aukeratuko dut nahi dudana hori entzuten jarraitu edo ez, baina noski, jendeari ezin diogu esan zer egin behar duen, eta zer musika entzun behar duen. Eta badakigu debekuak kontrakoa ekartzen duela, ez da erraza, baina nik uste hor tentuz ibili behar garela." Gaur egungo abestien letrak debekatzea adierazpen askatasuna ukatzea dela iruditzen zaio **Jessica Ots-i**: "Ikasi egin behar dugu letra horiek abesti hutsak direla, eta ez ditugula zertan interpretatu".

Arrazoiak arrazoi, argi dago jendarte gaixo dagoela eta sendabidea denon esku dagoela, gizon zein emakumeon esku. **Jurgen Landaren** ustez, "behar bezalako gizarte-aldaketa nabari bat egoteko, ezinbestekoa da heziketaren oinarriak aldatzea. Heziketa onik gabe, ez gara inora iritsiko".

Elkarlanean aritu ezean, nekez egingo diogu aurre gero eta arazo handiagoa bihurtzen ari den genero-indarkeriari.

LARRIALDIETARAKO TELEFONO ZENBAKIA:

016

Zein ondorio atera dira?

Emakumeen aurkako bortizkeria deserosoa da gizartearentzat

Zer egin behar da aldaketa egoteko? Sistema errotik aldatu eta apurtu behar da. Horregatik jarraitzen dugu deserosoak izaten emakume feministak eta mugimendu feministak orokorrean.

Amaia Urrejola

Bide egokitik gabiltza

Uste dut lan handia dagoela aurretik, baina bide onetik goaz. Erronka asko datorzkigu, baina seguru nago lortuko dutela. DUTELA diot, etorkizun batean ondorengoek, ez dudalako uste lorpen hori guk ikusiko dugunik.

Uxue Igarza

Heziketan dago gakoa

Behar bezalako gizarte-aldaketa nabari bat egoteko, ezinbestekoa da heziketaren oinarriak aldatzea. Heziketa onik gabe, ez gara inora iritsiko.

Jurgen Landa

Batasunak egiten du indarra

Ukaezina da lan handia daukagula egiteke, eta luzerako lana dela. Baina batu egin behar gara, eta elkarlanean egin behar dugu bide hori.

Jessica Ots

Podcast-a entzun nahi?

Mahainguru honen **podcast** edo audio-grabazioa **Spotify**n eta **Ivoox**en entzun eta deskargatu daiteke. Plataforma horietan gazteON izenarekin aurkituko gaituzu. Oso modu errazean!

Podcast-a ingelesetik datorren hitza da (IPOD eta BROADCAST). Mugikor eta ordenagailuetatik entzun daitekeen multimedia fitxategi honek indar handia hartu du azken bolada honetan. Hori ikusita, gazteON atala ezin da atzean geratu, eta grabazio hauekin martxan jarri da.

Sartu zaitez **etakitto.eus** web orrian, eta bertan aurkituko duzu mahainguru honen grabazioa.



Genero-indarkeria

Untzillatxeko diagonal handia ere poltsikora, Picosera irten bezperan

Aurreko zapatuan Eibarko Klub Deportiboko mendi taldeko 13 lagunek maiatzean eguraldiagatik bertan behera geratu zen 941 metroko Untzillatxeko diagonal handia egin zuten. Autoak Atxarten lagata, "Urresteiren ezker aldetik igarota Aitz Zorrotzarantz (Nodo) jo genuen; jarraian, plaka horietan barneratu eta III. graduko trepadatxoa eskalatzeko, ondo aseguratuta". Gorantz jarraituta, Leureta lepora iritsi ziren: "Bertan da



Untzillatx igotzen.

Saukuko Kobie eta, gainekaldean, Saukuko Ganeren (865 m.) gailur ikusgarria, eskalatazailiek La Proa izenarekin ezagutzen dutena". Lepo horretatik, Untzillatxeko gainera eramane zituzten ertza hartu zuten, nahiko aireko pausu batzuetatik igarota. Beheranzkoan Elosuko harrobian geldialdixoa egin zuten "eskalada teknikak praktikatzeko, justu-justu euria hasi aurretik".

Bihar eta etzi, bestalde, Europako Mendietarako edo Picos de Europarako irteera antolatatu dute Deporrekoeak, bertako Morra de Lechugales (2.443 m.) eta Pico Samelar (2.229 m.) igotzeko.



Untzillatx kobaren aurrean.

Asteburu bikaina Eibar Eskubaloiko taldeentzat

Euren liga lehiaketa hasi duten Eibar Eskubaloiko taldeek ondo hasi zuten denboraldia. 1. Maila Nazionaleko Somosek Euskadiko Kopako lehen fasean egindako bidetik jarraitzen du eta oraindik ez du partidurik galdu. Tolosa, Egia eta Elgoibarri irabazi eta Ereintzarekin berdindu ondoren, Avefor Huescaren aurrean asko landutako garaipena lortu zuten eibartarrek Ipuruan (24-22). Guerra eta Fuentesen geldiketak asko lagundu zuten Aitor Telletxeak gidatu zuen talde-lana nabarmentzen aurkari gogorraren aurrean. Jubenil eta kadete mailako taldeek ere irabazle izan ziren jardunaldian, lehen taldearena baino garaipen errazagoekin. Jubeniletan Tekniker Eibarrek 27-21 irabazi zion Amenabar Zarautzi mutiletan eta Grupo Mecalbe Eibar 21-36 nagusitu zen Hernanin One Telecomen gaineratik pasata. Kadeteetako talde biek 20 goleko aldearekin irabazi zituzten euren neurketak: Mecalbe nesken



Somosek erakutsitako defentsa-jokoak garaipena eman zion taldeari.

taldeak Neurri Elgoibarri eta Teknikerreko mutilek Zarautzeko Amenabarri. Senior mailako Grupo Mecalbe Eibar emakumezkoen taldeak eta Haritza gizonetzkoenak euren prestaketekin jarraitzen dute liga hasierari begira.



Urki foball klubeko taldeek indartsu hasi dute denboraldia

Aurreko asteburuan jokatu zuten sei taldeetatik bost garaile izan ziren eta bakarra galtzaila. Erregional 1. Mailako taldeak 0-2 irabazi zuen Aretxabaletan eta sailkapeneko laugarren postuan kokatu dira. Jubeniletako talde biek ere irabazi egin zituzten euren partiduetan: Ohorezko mailakoak 2-0 Urolari eta bigarren taldea, 1. maila-

koa, 1-3 gailendu zitzaion Aretxabaleta A taldeari. Kadeteetan, lehen taldea izan zen galtzaila bakarra: Ohorezko mailako taldeak 2-0 amore eman zuen Bergaran, eta 1. mailan Urki A-k 0-2 irabazi zion Urolari eta Urki B-k 6-1 Elgoibarri Unben. Infantil mailako taldeek oraindik ez dute liga hasi eta lagunartekoak dihardute jokatzeko.



Eibarko bolariak nagusi Bizkaiko hiru-txirlo txapelketan

Bizkaiko 30. hiru-txirlo bola joko txapela bereganatu du Eibarko Sergio Rodriguezek. Saikapenean Markinako Mateo Guenagarekin 37 txirlora berdinduta, aurea hartu die Iker Arizmendiari eta Antonio Ibarluzeari, bi horiek ere markinarrak, eta Elgetako Sebastian Aranzabali. Emakumezkoen saikapenean Olatz eta Nerea Olanok berdindu dute, 20 txirlorerekin, txapela Olatzek irabazteko. Eta gaztetan Kepa Rodriguez eibartarra izan da onena 24 txirlorerekin, Unai Zelaia markinarrari txirlo bakararengatik aurea hartuta. Santa Eufemian jokaturako txapelketako azken jardunaldian Kepa Rodriguez eibartarra nagusitu zen, *"berderatzi txirlo botata, beste guztiei gailenduta"*. Tiraldi itzel horri esker jantzi du txapela bere mailan.

Gisasola aita-semeak Gipuzkoako ehiza txapelketarako sailkatu dira

Aurreko domekan Zambranen jokaturako ehiza txikiko eskualdeko txapelketan Diana elkarteko ordezkari biak urriaren 6an jokatu den Gipuzkoako txapelketarako txartela eskuratu zuten. Jose Luis Gisasola aitak, gainera, bere mailan irabazteaz aparte, lehenengo aldiz lortu zuen nagusien mailako ehiztari batek senior mailako garaiak baino pieza gehiago kobratzea. Zazpi eper eta faisaia ehizatu zituen Jose Luisek, bere mailan probintzialerako sailkatutako beste biek, Jose Mari Egañak eta Mauro Gonzalezek hiru eper lortu zituzten bitartean. Seniorretan Ivan Bellok irabazi zuen, zazpi eperrekin, Arkaitz Egaña (sei eper) eta Iñigo Gisasola eibartarraren (bost eper eta galeperra) aurretik. Urteak dira Gisasola aita-semeak maila handiko txapelketarako txartela lortzen dutela, hainbat txapelekin batera.



Dominak Casinoko billar jokalarientzat Gipuzkoako txapelketan

Casino Artista Eibarres-eko ordezkariak parte hartu dute Euskadiko hiru bandako eta Gipuzkoako karanbola libreko txapelketetan. La Bilbaina soziedadean jokaturako txapelketa hori bataioa izan da eibartarrentzat federatuen arloan; hala ere, karanbola libre modalitateko Gipuzkoa Sarian lortu ahal ziren lau dominetatik hiru ekarri dituzte Eibarrera, *"lehen, hirugarren eta laugarren postuei zegozkienak"*. Hiru bandako modalitatean ezin izan zuten maila horretako emaitzik lortu, Espainiako eta nazioarte mailako jokalaririk handiak zirelako bertan: *"Asko kostatu zitzaigun finala jokatu zuten Joseba Escribano eta J. Mora-*



les moduko jokalariei aurre egitea; hala eta guztiz, bueltatzeko asmoa dugu", diote Casinokoek. Abendura arte hiru bandako txapelketa dihardute jokatzeko Casinoko

Artista Eibarresen, 16 parte-hartzaile dituen ligaren barruan; guztira, 140 partidatik gora izango dira gure herriko elkarte horretako bi lokaletan.



Durangok hamar gol sartu zituen foball-zaletuaren bigarren jardunaldian

Bizkaitarrek Los Paisanos L. Ruedari sartutako 10-1ekoa izan zen bigarren jardunaldiko emaitzarik deigarriena. Durango eta Garajes Garcia dira orain arte jokaturako partidu biak irabazi dituzten talde bakarrak. Lau punturekin jarraitzen diete Azkena Adahik, Ipur Sagardotegiak eta Slow XOK-ek osatutako hirukoteak. Asteburu honetan bihar 10:30ean jokatu den Slow XOK eta Azkena Adahiren arteko neurketak du alde zuretik interes gehien.

Flysch Beltzako zeharkaldi biek 300 lagun bildu zituzten

Arrakastatsu jarraitzen du izaten aurten seigarren edizioa osatu duen Flysch Beltza Trabesiak. Eibar Igerixan klubak antolatzen duen probak jarraitzaile asko ditu egun eta eguraldi eguzkitsuak eta itsaso bareak igerilarien parte-hartzea handitu zuen. Saturrarango hondartzatik irtenda zeharkaldi luzea egin zutenen podiuma honakoek osatu zuten: Jon Mujika (1:22:16), Xabier Labaka (1:26:29) eta Iker Chamorro (1:29:18) gizonezkoetan; eta Andrea de la Hera (1:26:31), Erika Amundarain (1:42:13) eta Jugatx Mikelarena (1:50:19) emakumezkoetan. Mutrikuko arranplatik irtenda zeharkaldi motza egin zutenen arteko hiru onenak honakoak izan ziren: gizonezkoetan, Mikel Iriondo (0:42:10), Iñaki Loinaz (0:43:10) eta Asier Goenaga (0:46:36); eta emakumezkoetan, Amaia Zendoia (0:43:21), Irati Mendia (0:46:41) eta Eibar Igerixaneko Maite Barruetabeña hirugarren postuan (0:47:57).

Helmuga, urtero bezala, Debako hondartzan zegoen eta, guztiendako pintxo, edari, pasta eta abarrekin batera, irabazleendako sariak banatu zituzten, zozketatutako beste hainbat oparirekin. Hori dela-eta, Eibar Igerixanetik laguntzaile, babesle, bazkide eta



gaztetxoaren gurasoen parte-hartzea eskertu nahi dute, "euren diru-laguntza, produktu eta lanorduekin asko erraztu delako gure ametssetako trabesia".



53 parte-hartzaile izan zituen XX. Arratera rollerski igoerak

Euretatik 48k amaitu zuten proba: 25 gizonezko, 19 emakumezko eta lau neska-mutil. Irabazleak Gasteizko Peio Añarbe eta CAEI taldeko Marta Cester izan ziren, eta eurekin osatu zuten podiuma Jurgi Irurieta eta Eibarko Klub Deportiboko Julen Chaconek gizonezkoetan eta Alaia Juaristi eta Henar Etxeberria emakumezkoetan. Euskal Herri mailan egiten den liga barruko lasterketan estatuko hainbat tokitatik etorritako parte-hartzaileak izan ziren, tartean Deporrekoko zazpi eibartar.



VII. Asier Cuevas herri-lasterketa urriaren 12an jokatu da

Asier Cuevas herri-lasterketaren zazpigarren edizioa hemendik bi astera jokatu da, betiko moduan, Eibarko kaleetatik. Zapatu horretan, 18:00etan hasita, egingo den probarako izen-ematea zabalik dago www.saikapenak.com helbidean eta



inskripzioa egiteko 12 euro ordaindu behar da. Proba-ren egun berean izena ematea ez da onartuko. Eibarko Klub Deportiboko atletismo batzordeko antolatzaileek diotenez, "flyerra bete eta Deporren entregatu daiteke eguaztenetan arratsalde". Iazko edizioan 196 parte-hartzaile izan zuten probak, euretako 26 emakumezkoak, eta Cuevas helmugaratu zen lehen postuan Julen Teranekin eskutik helduta.

Andoni Mayo garaile Sopuertako kanikrosean


Amarok taldeko Andoni Mayok eta Sonia Dominguezek, Dexter eta Zeus txakurrekin hurrenez hurren, lasterketa dotorea egin zuten Sopuertako Castaño auzoan Letxugaren jai-batzordeak antolatutako herri kanikrosean. Mayok gizonezkoen proba irabazi zuen eta Dominguez hirugarren helmugaratu zen emakumezkoen artean. Ondo aprobeztatu zuten, beraz, eibartarrek urriaren 27an Arrigorriagan hasiko den denboraldi berriari begira motorrak berotzen joateko: "Eibarren ere izango da lasterketa bat, ondo bidean, abenduaren hasiera bueltan".



BAKARNE ELEJALDE: Mezu garbia: STOP.



Ikasturte berrirako nondik norakoak aurkeztu eta gero, kalera irten da Berbetan mintzapraktika programa. Barixakuan Eibarko Bizikleta Plazan izan zen jaia: umeentzako puzgarriak eta eskulan-tailerrak izan ziren eta dantza egiteko aukera bikaina eskaini zuen Arima Diskofestak. Eta aste honetan auzoetan izan da jaia, umeentzako jolasak eta txokolate-jana. Ipurua, Urki eta Urkizun izan zirenek primeran pasa zuten. Euskera praktikatzeko aukera eta guraso eta seme-alabentzako ekintza ugari antolatzen ditu Berbetanek urte osoan zehar. Parte-hartzea doakoa da eta edozein momentutan eman daiteke izena ([943200918](tel:943200918) / elkartea@etakitto.eus)



Aita eta alabaren ehun lan espazio berean ikusteko aukera egongo da gaur 19:00etatik urriaren 20era arte Portaleko erakusketa aretoan. Ainizek maitasun handiz prestatutako erakusketa da, aitaren heriotzaren 20. urteurrena bete den honetan. Danielen maisulanak eta Ainizek aitaren eraginez sortutako lanak ikusteko aukera egongo da.

A itak eta alabak elkarri egindako begirada da 'RE_ENCUESTRO', Ainize Txopitearen berbetan, "modu ezberdinetan ematen den elkar aurkitze bat". Lehenik, Daniel eta Ainizeren arteko elkarriketa delako, hau da, arte-erakusketa bateratua. "Aitaren 50 lan eta nire 50 lan egongo dira". Daniel hil eta 20 urtera artista biak berriz elkartzen dira, eta urtean zehar aitaren inguruko hiru erakusketatan (Donostian, Durangon eta Zarautzen) komisariora izan da Ainize. Eibarkoa laugarrena izango da. "Gainera, Koldo Mitxelena eta Durangoko museoko erakusketekin katalogo bi publikatu genituen. Eibarkoa, ordea, erakusketa kuttun eta garrantzitsuena da, eta espazio aldetik oso erronka handia izan da antolatzeko orduan". Hala ere, Portaleko erakusketa aretoak dituen 700 metro karratuak bete ondoren, Ainize oso pozik dago, buruan zuena errealtate bihurtu duelako.



DANIEL eta AINIZE Txopitearen arteko topaketa Portalean

Bigarrenik, artista biak Portalearekin elkartzen direlako berriz, hau da, espazioarekin. "Aita hil ondoren bere omenezko erakusketa egin zen hemen 1998an eta nik ere erakusketa egin nuen hemen 2009an".

Hirugarrenik, elkar aurkitzea Eibarren gertatzen delako. Horregatik, Daniel Txopiteak Eibarren egindako margolanak ekarri nahi izan ditu Ainizek. "16 urte zituenetik 26 urte bete arte margotutakoak, Zarautzera bizitzera joan aurretik. Gainera, lan batzuk argitaragabeak dira".

Eta laugarrenik, Ainizeren amama Errekatxun bizi zenez eta aitxixak eskopeta tailerra hemen zuenez, guztiak berriz toki berean batzen direlako. Azkenean, zirkulua ixten da erakusketa honekin.

Daniel Txopitearen lan argitaragabeak

Daniel Txopitearen erretratu batek ematen dio ongietorria erakusketan sartzen denari. "Bere lanak erakusteaz gain, gure artean eduki nahi izan dut aita". Erakusketa nahi den moduan bisitatu daiteke, baita batetik bestera salto eginez ere, bai-

na lanak modu kronologikoan ezagutu nahi izanez gero, eskuinera jo behar da lehenik. Beheko pisuan Daniel Txopitearen lanak ikusi eta, ondoren, bigarren pisuan dauden Ainize Txopitearen obrak ikustea da bisita egiteko modurik egokiena.

Ibilbidean margolanak, eskulturak, olerkiak eta ikus-entzunezkoak aurkitzen dira, tartean Ainizek aurten aitaren omenez egindako dokumentala. Daniel Txopitearen ibilbidearen laburpenaz gainera, artista eibartarrekin lan egin zuten artista, lagun eta abarren berbak ere jasotzen dira. "Esker oneko berbak besterik ez ditut jendearentzat, dena eman dute dokumentala eta erakusketa prestatzen laguntzen".

Ordena kronologikoa jarraituz gero, Daniel Txopitea gazte baten lanak ikusi daitezke. "Amedeo Modiglianiren koadro bat denda baten eskaparatean ikusi zuen eta liluratuta geratu zen. Hor piztu zitzaion margolaritzarekiko intriga". Beraz, Modiglianiren omenez egindako koadro bat ikusten da lehenik, 'Ume begiak'. Erakusketa hasieran dauden koadro guztiak Eibarren margotu zituen eta den-denak el-

karrekin kokatzea demasa da Ainizeren iritziz. Gainera, Danielen poema batek jantziko du gune hori. *"Ezberdina da bere koadroen interpretazioa egitea edo zuzenean bere berbak irakurtzea"*. Haurtzaroari buruz egiten du berba olerki horretan eta 'Familia' izeneko koadro baten eta Daniel koadro hori margotzen ikusten den argazki baten alboan egongo da jarrita. *"Bizia ematen diola uste dut, koadro bat amets bat delako. Ez da balio estatiko bat, ametsen islada bat baizik"*.

Soldadutza egin zuenean Danieli ez zioten margotzen utzi eta Eibarri idatzitako olerki batekin gogorarazi nahi izan du Aini-

zek sasoi hura. *"Proiektu bati heltzen diodanean ari ma eta bizia ematen saiatzen naiz, denbora eta memoria aktibatzea"*, eta horregatik aberastu du arte-erakusketa hau aitaren olerki eta argazkiekin. Aipagarria da, baita ere, bertan aurkitzen den Juan San Martinek (*"nire aitabixiak"*) idatzitako olerki bat. *"1976an Goruntz Taldeak egindako katalogo batean Juanitok aitari idatzitako olerki bat azaltzen da eta sasoi hura gogoratu nahi izan dut"*.

Jarrera berritzaile eta ikertzailea zuen artista izanik, Daniel Txopiteak arte disziplina ezberdinak landu zituen eta margolaritzaren barruan ere teknika ezberdinekin sortu zituen bere lanak. Adibidez, erakusketan berari dagokion ibilbidearen amaieran 'Kolosoak eta titanak' kolezioko eskultura bat ikusi daiteke. Margolanekin edo eskulturekin, Jorge Oteizak esan zuen bezala, *"Txopiteak Eibar besarkatzen du"*.

Ainizeren poesia bisuala

Daniel eta Ainize Txopiteak harreman estua zuten eta oroitzapen horrek bateratuta mantentzen ditu. Artea da bien arteko lokarria (*"arteak batzen gaitu, baina modu ezberdinean egiten dugu"*) eta Ainizeren iritziz oso positiboa da aitak eskaini zion guztia, baina txikitari uko egiten zion artista izateari. *"Ez nuen ezer jakin nahi artearen inguruan, baina niretzat saihestezina zen artearen munduan murgiltzea"*. Berak dioen bezala, gune neutral batean piztu zitzaien artearekiko arreta eta Londreseko London Collegen garatu zuen artista bidea, aitaren itzaletik urrun. *"Han ez nintzen inor, ez nintzen Txopitearen alaba. Oihan batean egon nintzen"*.

Ainizeren lanak erakusketa aretoko goiko pisuan daude ikusgai. 2007. urteaz geroztik sortutako lanak dira eta, bere esa-



netan, *"neure buruarekin egin dudana elkar bateratzea izan da"*. Lan batzuk, gainera, erakusketa honetarako sortu zituen espreski. *"Eibarri buruzko sail bat egin dut"*. Horrela, argazki zaharrek hainbat collage egin ditu herriko armagileak, pilotariak eta errepublikako emakumeak gogoratzeko.

Disziplina anitzeko artista da Ainize. *"Artistek, gaur egun, espresatzeko metodoak bilatzen ditugu. Artearen mundua ez da lehen bezain purista. Lehen disziplinak nahiko markatuta zeuden, baina orain zerbait esan nahi baduzu, hori esateko metodoa bilatzen duzu"*. Zentzu horretan askatasun handiagoa dagoela uste du, *"baina ikerketa profesional gutxiago egon daiteke"*. Hau da, orain artistek denetarik egiten dute pixka bat, baina ez dira espezializatzen eta ez dute tekniketan asko sakontzen. *"Niri ikertzea gustatzen zait, baina aitak askoz ere gehiago ikertzen zuen. Apurtzailea zen, baina bere sailek denbora gehiago irauten zuten, hamar urte adibidez. Nire lanetan dudana ildo nagusi bakarra lengoia-irudia kontzeptua da, poesia bisuala"*.

Umorea eta kritika ez da falta Ainizeren lanetan, eta emakumeek presentzia handia dute. Aitaren lanek bezala, bere lan batzuek denboran luze irauten dute. *"Lan onek zerbait transmititzen dute eta gailendu egiten dira"*. Txopitearren lanak, behintzat, eibartarron gogoan egongo dira beti.



JUAN CARLOS ZORROZUA OLARRA

(IRAILAREN 25EAN HIL ZEN, 61 URTEREKIN)



ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE BIHOTZETAN.

ETXEKOAK





JOKIN BERGARA
(bertsolaria)

“Bertsolaritza gaztetuago eta berrituagoa ekarri behar dugu”

Jokin Bergarak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetan hartu zuen parte aurreko domekan Zumaian eta gaur bertso-saio musikatua egingo du Beñat Gaztelumendi, Miren Artetxe eta Manu Goigogana bertsolariekin, Gari Otamendi eta Aritz Bizkaireren musikak lagunduta, 22:00etan Txantxa Zelaiko kioskoan. Euria eginez gero, Portaleko Areto Nagusian egingo da.

- Zer moduz Zumaiaiko saioan?

Sentsazio gazi-gozaarekin amaitu nuen. Gustora egindako saioarekin, niretik kantatu nuen, solte eta gaiari ertzak bilatzen, baina hori ez zen puntuetan islatu. Bertsoa ulertzeko modu zehatza dute txapelketan, Gipuzkoako bertso tradizioarekin zerikusia duena, eta hortik kanpo kokatzen garenak ez gaituzte hainbeste baloratzen. Gehiago baloratzen da Gipuzkoako erdialdean dagoen umore mota. Generoa, adina, euskera-mota eta hainbat gauza hartu behar dira kontuan, eta txapelketaren marko zurrin horretan ez didate puntu asko eman. Bertso-sistema, orokorrean, elitista da, ez da batere berdinzalea, eta bertsoa ulertzeko modu hegemonikotik kanpo dagoen jende asko baztertzen du.

- Belaunaldi berriek bide berriak arakatzeko beharra duzue?

Plazen mundua mugatua da, elitista, baina zirkuitu alternatiboak sortzen dihardugu. Gizartean bezala, bertsotan dihardugunon profila heterogeneizatzen ari da. Bertsolaritza lehen baino anitzagoa da, eta ikerketa soziologiko batek zioen bezala espazio gehiago ari dira sortzen jende eta gustu ezberdinentzat. Arraten Lizaso eta Egaña entzutea gustatzen zaionak aukera hori du, baina Beleko tabernan bertso-trama entzun nahi duenak ere badu berea. Gaiak, mundu ikuskerak, kritika egiteko moduak... oso ezberdinak dira. Bestetik, Eibarren ez dugu bertso-tradizio handirik eta oso garrantzitsua iruditzen zait bertsolaritza gaztetuago eta berrituago bat herrira ekartzea.

- Hankamotxak bertso-eskolak bide berri horri heldu dio?

Gauza berriak egiteko gogoia duen jendea sartu gara. Motibazio saioak egiten ditugu eskoletan eta gauza berriak egiten dagoen jendea dagoela erakutsi nahi diegu gazteei. Zerbait esateko sorkuntza-mota bezala ulertzen dugu bertsolaritza, ez bakarrik entretenitzeko, eta gazteak erakartzeko ahalmena du gainera.

- Entreenimendua edo ondo pasatzea eta txapelketako lehia, azken finean, ez dira kontrajarriak?

Bai. Bestetik, zure burua bertsolari moduan legitimatzeko modua da txapelketa. Txapelketan bidea eginez gero, bertsolari bezala aitortzen dizute, azterketa bat gainditzea bezala, baina espazioa mugatua da eta saioa baldintza prekarioetan egiten da. Urduri zaude epaitu egingo zaituztelako, ez dakizu zein gai jarriko dizuten, gaia nondik dagoen jarrita, kantukideak zer esaten duen... Hori da onartu dugun sistema eta ez nago batere ados. Bertsolaritza asko aniztu da eta ez ditugu mekanismoak jende guztiari tokia egiteko txapelketaren bidez.

- Euskal Herriko Txapelketako BEC-eko finalak ekitaldi masiboak izaten dira. Hortik haratago bertsolaritzarekiko zaletasuna hazi egin dela uste duzu?

BEC-ekoak euskal kulturarekin du zerikusi asko, euskaldunak garela berresteko ekitaldi bat bezala. Ondo pasatzeko jai bat da, bertsolari onenak entzuteko aukera izateaz gain. Aipatutako ikerketa soziologikoak dio plazetara jende gutxiago doala, baina plaza gehiago dagoela. BEC-eko boom hori plaza txikietan islatzen da, saio bat antolatzerakoan jendeak erantzuten duelako.

KARRIKAN
EIBARKO TALDIAK
EIBARKO TABERNETAN
IRAILAK 27, 28, 29
BARIXAKUA
EZDOK
KVALVIKA 20:00
MISE EN ABYME 22:00
AMETSA
URTEURREN KONZERTUA 20:30
ZAPATUA
AMESTI
DJ KARBA 12:30
PAULANER
BIG ION 13:30
BELEKO
EKINOCIO 23:00
EZDOK
TORIBIO ROCK
DOMEKA
ZUBI GAIN
NI NEU 13:00

Zuzeneko musikak beteko ditu herriko kaleak

Gaurtik hasi eta domekara bitartean, zuzeneko musikarekin gozatzeko aukera ederra izango da gurean, Eibarko Musikari Gazteen Elkartearen (EMGE) eskutik sortu den Karrikan izeneko ekimenari esker.

“Musika herriko toki guztietara eramateko” asmoari jarraituta, Eibarko hainbat taldek kontzertua emango dute asteburuan. Gaur 20:00etan Kvalvikak joko du Ez Dok tabernan, 20:30ean urteurren kontzertua hartuko du Ametsa tabernak eta 22:00etatik aurrera Mise en Abyme-ren txanda izango da, Ez Dok-en. Zapatuan, berri, DJ Karba (12:30ean

Amesti tabernan), Big Ion (13:30ean Paulaneren) eta Ekinocio (23:00etan Belekon) taldeek jardungo dute. Eta domekan, 13:00ean, Ni Neuk emango du kontzertua Zubi-Gain tabernan.



Toribio Rock zapatuan

Aipatutakoez gain, Ez Dok Rock-ek, EMGEren laguntzarekin, beste lau kontzertu gehiago lotu ditu zapatu arratsalde/gauerako, Toribio Rock izeneko jaialdian: Toc, Sua, Lukiek eta Liher taldeak Toribio Etxebarria kalean arituko dira, arratsaldeko 17:00etatik 23:00etara.




Umorez betetako lana eskainiko du bihar Nerea Gomez eibartarrak

Bihar iluntzean, 20:30ean taularatuko du Nerea Gomez eibartarrak "Dando el cante" antzezlan, Coliseo antzokian. Madrilen bizi den aktoreak beste eibartar batek, Iker Vesgak sortutako antzezlan Madrilen, La Escalera de Jacob antzokian estreinatu zuen iaz eta, urtebete antzeztan ibili eta gero, oso kritika onak jaso ditu orain arte. Monologo honetan Nerea Gomez "La Nere" izeneko pertsonaiaren azalean sartzen da eta denetarik (antzeztu, abestu...) egingo du, umorez gainezka egiten duen lana eskaintzeko. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Afrikako dantzak ikasteko klaseak emango dituzte Kulturalean

Arrate Kultur Elkarteak "Dantza afrikarrak Thiernorekin" ikastaroa antolatu du, Thierno Ibrahimia Diedhiou irakaslearekin. Klaseak urriaren 4an hasiko dira eta barixakuero emango dituzte, 19:00etatik 19:30era, Arrate Kultur Elkartean bertan. Ikastaroaren prezioa 35 eurokoa da eta izena emateko 638284912 telefonora deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke.



"Argazkigintza digitala" ikastarorako matrikula zabalik

Urriaren 4ra arte eman daiteke izena "Argazkigintza digitala: lehen urratsak" ikastarorako. Irakasleak Jose Valderrey eta Juan Antonio Palacios Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideak izango dira eta klaseak urriaren 14tik azaroaren 20ra bitartean izango dira (30 ordu izango dira guztira), Portalean, astelehen eta eguaztenetan, 19:00etatik 21:30era. Ikastaroaren prezioa 47 eurokoa da Eibarren erroldatuta daudenentzat eta 79 eurokoa gainontzeko guztientzat. Informazio gehiagorako zein izen-emateko Pegorara jo daiteke.



Esther Fdz. De Maruriaren margoak Ermuan

Esther Fernandez de Maruri Arguiarro artista eibartarrak pintura erakusketa zabalduko du astelehenean Ermuko Lobiano Kultur Gunean. Erakusketa urriaren 13ra arte egongo da ikusteko moduan eta egunero zabalduko dute, 18:00etatik 20:00etara.

Vicente Iriondoren erakusketa Gasteizen

Eguaztenaz geroztik Vicente Iriondo eibartarraren erakusketa ikus daiteke Gasteizen, Vital Fundazioaren erakusketa gunean (Postas 13-15). Margolanak urriaren 18ra arte egongo dira ikusgai, Luis de Ajuria Aretoan, asteleheneetik zapatara 18:00etatik 20:30era eta domeka eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era.



"Kontari eta Kantari" ipuin-kontaketa

El Corte Inglesak "Kontari eta Kantari" saioa antolatu du urriaren 5erako, 18:00etan ekitaldi aretoan. Olga Sanchez musikaterapeutak eta Ane Lopez ipuin kontalariak egingo dute "Ortzadar arraina" izenburuko ipuin-kontaketa, euskeraz eta musika-tresnekin lagunduta. 2-6 urteko haurrentzat pentsatutako saioa izango da, gurasoekin batera joateko. Doan izango da, baina aurretik izena eman beharra dago, liburu sailean (3. solairuan). Plaza mugatuak dira.

Ertza dantza konpainiaren lanik berriena aurkeztuko dute gaur Coliseoan

Ertza dantza konpainiak "La teta de Janet" ikuskizuna aurkeztuko du gaur, 20:30-ean Coliseo antzokian. Taula gainean Maria Andres, Thiago Almeida, Henrique de Souza, Denis Martinez eta Jhana Electrorganic dantzariak jardungo dute, Asier Zabaletaren zuzendaritzapean. Ertzak dakarren ikuskizunaren oinarrian Janet Jackson protagonista duen gertakizuna dago:

"Janet Jackson-ek ikuskizun batean bular bat erakusten du eta instant batean irudi horrek mundu osoa zeharkatzen du, eskandalu itzela sortuta eta epaitegiataraino ailegatu-ta. Zerk eragiten du ekintza berberak hainbesteko garrantzia hartzea batzuetan, eta guztiz normala suertzatzea bestetan? Hain zuzen ere, horretaz mintzatuko da ikuskizuna. Gaur egungo gizarteek



nola eraikitzen duten nork bere normalitatea, beti ere iritzi subjektikoetan oinarrituz".


Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

'Dantza' filmak V. EZAE Saria jaso du

EZAE Euskadiko zine aretoen elkarteak V. EZAE Saria eman dio "Dantza" pelikulari, horrela euskal zinema-industriari egindako ekarpena eta pelikularen arrakasta, ibilbidea, kalitatea eta originaltasuna aitortuta. Aurreko urteetan, "Loreak", "Amama" eta "Handia" filmek eta Juanba Berasategi zinemagilearen senideek jaso dute saria eta aurtengo euskal zinema-aretoen kudeatzaileek Telmo Esnalek zu-



zendutako filma saritu nahi izan dute. Mundu osoko hamar bat zinema jaialditan proiektatu da "Dantza", eta Donostiako Zinemaldian Glocal in Progress Industriaren Saria eta Glocal in Progress Saria irabazi ditu, 2017 eta 2018 urteetan, hurrenez hurren. Pelikulan, besteak beste, Kezka taldeko hainbat dantzari hartzen dute parte. Saria emateko ekitaldia martitzenean izan zen, Donostian.



Urriaren 4ra arte jasoko dituzte Egoazia lehiaketarako argazki-lanak

Egoazia Gobernu Kanpoko Erakundeak II. Argazki Lehiaketa antolatu du. Argazkietarako gaia "Plastikorik gabe, aurrera!" da eta lehiaketarako irudiak JPG/JPEG formatuan bidali beharko dira, 300 ppp-ko bereizmenarekin egoazia@egoazia.org helbidera, urriaren 4a baino lehen. Lehen saria irabazten duenak Sosola baserrian gaua lagun birentzat jasoko du, bigarrenak bidezko merkataritzako produktuen otarra eta hirugarrenak bertako produktu ekologikoen otarra. Sari banaketa ekitaldia urriaren 19an, Kontsumo Arduratsuen IV. Azokan izango da.

ISI RODRIGUEZ NIETOren

3. urteurrena (2016-IX-30)



"Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko zuk izandako ilusioa eta bizipoza"





Euskal Jaia DEBAN gaur eta bihar

Zuhatza Euskara Elkarteak ekintzez betetako egitaraua prestatu du, urtero moduan. Gaur Debako euskararen historia soziala dokumentala aurkeztuko da, Kalean Kantuz-en kalejira egongo da eta esku-pilota partiduak. Bihar, 10:00etan taloak plaza zaharrean, 11:30ean zanpantzarrak eta 12:30ean Gure Kai dantza taldea eta musika eskolako dantzariak. 13:30ean erraldoiek agurra egingo dute Foruen plazan eta 14:30ean IX. marmitako lehiaketa izango da jokoan. Herri-bazkatia 15:00etan hasiko da pilotalekuan. Egitaraua ixteko, Eibarko Mugi Penderoak bi erromeria eskainiko ditu Foruen Plazan: 20:00etan eta 23:00etan hasita.



San Miguel jaiak ELGOIBARKO Aistian

Kanpai jotzearekin eta auzo kalejirarekin hasiko dituzte jaiak gaur arratsaldean. Gauean Haritz dantza taldearen emanaldia eta gazte afaria izango dira, besteak beste. Bihar umeen jolasak eta bazkaria antolatu dute eguerdi alderako eta, arratsaldean, hiru-txirlo bolo txapelketa jokatu da, 18:00etan hasita. Etzi, San Miguel egunean, meza izango da 11:00etan, trikitaliak jarraian eta, 12:00etan XIII. Artzain Txakur txapelketa jokatu da. Bazkaria izango da 14:30ean eta idi-probak 17:00etan.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- **Arantza Etxabe Antero.** 55 urte. 2019-IX-18.
- **M^a Concepcion Moreno Villar.** 74 urte. 2019-IX-18.
- **Abdellah Mohammadi.** 64 urte. 2019-IX-19.
- **Adolfo Escolante Cristobo.** 52 urte. 2019-IX-20.
- **Manuela Vazquez Azkarate.** 92 urte. 2019-IX-20.
- **Hortensia Güemes Prado.** 88 urte. 2019-IX-20.
- **M^a Teresa Sagardui Telleria.** 97 urte. 2019-IX-21.
- **Oier Areitio Blasco.** 38 urte. 2019-IX-23.
- **Pilar Garate Iturbe.** 95 urte. 2019-IX-23.
- **Angel M^a Leturiondo Alberdi.** 73 urte. 2019-IX-24.
- **M. Gotzon Bolunburu Zubillaga.** 63 urte. 2019-IX-24.
- **Juan Carlos Zorrozuola Olarra.** 61 urte. 2019-IX-25.
- **Julian Moro Gil.** 85 urte. 2019-IX-25.

jaiotakoak

- **Julen Madarieta Caceres.** 2019-IX-17.
- **Elene Peña Fernandez.** 2019-IX-19.
- **Noa Bollar Conde.** 2019-IX-20.
- **Ishaq El Ayadi.** 2019-IX-22.
- **Ametz Varela Elkoroiribe.** 2019-IX-22.

farmaziak

- Barixakua 27**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 28**
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Domeka 29**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Astelehena 30**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 1**
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Eguaztena 2**
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Eguena 3**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 4**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

6	2	1	7	8	3	5	4	9
4	5	9	2	6	1	8	7	3
8	3	7	4	9	5	2	6	1
9	6	5	8	1	7	4	3	2
1	7	4	3	2	9	6	5	8
2	8	3	6	5	4	9	1	7
3	1	2	5	4	8	7	9	6
5	9	6	1	7	2	3	8	4
7	4	8	9	3	6	1	2	5

			9	1		4		
	2	3					9	
	9		5					8
		8			2	9	1	
			1	5				
	7	2	3			4		
2					4		6	
	8					5	3	
	3		2	9				

Barixakua 27

BERBETAN

17:00/18:30. Berbetan jaia. Umeentzat jolasak eta txokolatada. Urkizuko parkean.

KARRIKAN KONTZERTUAK

20:00. Kvalvika.

Ez Dok tabernan.

20:30. Urteurren kontzertua. Ametsa tabernan.

22:00. Mise en Abyme.

Ez Dok tabernan.

DANTZA

20:30. "La teta de Janet" ikuskizuna (Ertza). 8 euro (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.



BERTSO-MUSIKATUAK

22:00. Hankamotxak bertso eskolaren eskutik. Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Miren Artetxe, Manu Gologana eta Jokin Bergara. Musikariak: Gari Otamendi eta Araitx Bizkai. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal. Doan. Txaltxa Zelaiko auditorioan (euria egingo balu, Portalean).

KONTZERTUA

00:00. Sotano 21 taldea. Koskor tabernan.

Zapatua 28

LEHIAKETA

11:30. Maskota lehiaketa. Izen-ematea maskota sailean. El Corte Ingleseko terrazan (euria egingo balu, beste egun batean egingo dute).

KARRIKAN KONTZERTUAK

12:30. DJ Karba. Amesti tabernan.

13:30. Big Ion. Paulaner tabernan.

23:00. Ekinocio. Beleko tabernan.

TORIBIO ROCK

17:00/23:30. Toc, Sua, Lukiek eta Liher taldeen kontzertua. Toribio Etxebarria kalean.

AGINAGAKO JAIK

18:00. San Miguel bezpera dela eta, kanpai-iraulketa. Aginagan.

WENZESLAO ORBEAKO JAIK

Egunean zehar. Musika (Dj Arno, Dúo Amanecer), gastronomia (chorizo-jana, tortilla, herri bazkaria) eta umeendako jarduerak (jolasak, puzgarriak, txokolate-jana). Ibilgailu klasikoaren erakusketa ere egongo da Wenceslao Orbea kalean.

BIEN APARECIDA JAIK

20:00. Puerto Chico abesbatzaren emanaldia. San Pio X.a elizan.

21:00. Piskolabisa. Ipuruako bolatokian.

ANTZERKIA

20:30. "Dando el cante", Nerea Gomez "La Nere" eibartarraren eskutik. 8 euro (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Domeka 29

KONTZENTRAZIOA

09:30. Ibilgailu klasikoaren Eibarko II. Kontzentrazioa.

11:30. Irteera.

12:30/14:30. Buelta eta erakusketa: ibilgailu klasikoko stand tematikoak, miniaturrekin, arroparekin, liburuak... bigarren eskuko produktuko azoka txikia. Untzagan.

KARRIKAN KONTZERTUAK

13:00. Ni Neu. Zubi-Gain tabernan.

AGINAGAKO JAIK

11:00. San Miguel eguna. Meza nagusia, Usartza txistulari taldearekin.

12:00. Luntxa eta umeendako jolasak.

14:30. Paella-jana.

17:00. Erromeria, Mirari eta Aintzane trikitilari taldearekin. Aginagan.



Astelehena 30

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatu eta Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 1

MANIFESTAZIOA

12:00. Jubilatu eta Pentsiodunen manifestazioa, Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna dela eta. Untzagatik hasita.

IKASTEN

16:00. Puntu tailerra.

17:00. Joskintza tailerra. Portalean.

HITZALDIA

19:00. Grezian errefuxiatuekin izandako bizipenak. Elixabet Manzano eta Miren Zubeldia boluntarioen eskutik. Portalean (areto nagusian).

Eguaztena 2

IKASTEN

10:15. Ibilaldia: Krabelin-San Pedro-Moru-Elgoibar. Bazkaria eraman. Autobusaren irteera ordua, Ego-Gainetik.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

Eguena 3

KALEETAN KANTUZ

18:00. Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatuetxean.

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Erakusketak

Irailaren 28ra arte:

– **VIVIANE STRAUB-EN "BIDEAN" MARRAZKIAK (Kokojaten)**

Urriaren 6ra arte:

– **ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN LANAK (Topaleku)**

Urriaren 20ra arte:

– **"RE_ENCUENTRO", DANIEL TXOPITEA & AINIZE TXOPITEA (Portalea)**

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MIKEL Lapeyra, atzo 9 urte bete zenduazelako. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Urkoren partez.



Zorionak, JARE, gaur bi urtetxo beteko dozuz-eta. Patxo erraldoia famelixa guztiaren eta, batez be, Maddiren partez.



Zorionak, MIKEL, domekan 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat aitta, ama eta Unairen partez. Ondo pasa eguna!



Zorionak, NOA, atzo 6 urte bete zenduazena-eta. Famelixaren eta, batez be, Luka zure neba eta Danel eta Aner lehengusuen partez.



Zorionak, MADDI, domekan 7 urte egingo dozuz-eta. Oso egun ona pasa bihotza! Famelixa guztiaren eta, batez be, Ekhiren partez.



Zorionak, ARRATExo, gure politta, martitzenian 9 urte egin zenduazena-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, UDANE, zure 8. urtebetetzian. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, PAULE!!, martitzenian urtetxua egin zuduana-eta. Musu bat etxekuen eta, batez be, Euken, Xuhar eta Juleneren partez.



Zorionak, NAIA eta MIREN! Gozada bat da elkarrekin zenbat disfrutatzen dozuen ikustia. Segi horren jator eta maitakorrak izaten. Musu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, Amama BEGO eta Aitxita JOSE LUIS!! Iraillaren 20xan 50 urte ezkonduta egin zenduuelako. Oso ondo pasa genduan zapatuan. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, bikote!! LUCIAK 3 urte egin zittuan abuztuaren 29xan eta MIKELek astehelenean, 30ian, 8 urte beteko dittu. Patxo haundi bat famelixaren eta lñakiren partez.



Zorionak, KOIKILLI (domekan 6 urte) eta PELLO (astehelenean 5 urte) urtiak beteko dozuez-eta. Patxo haundixa etxeko guztien eta, batez be, Artzai, Txomin, Ekhi, Eñaut eta Enararen partez.



Zorionak, URKO!!!, urriaren 2xan 6 urte potolo egingo dozuz-eta. Patxo potolo bat etxekuen partez!



Zorionak, JUNE, abuztuaren 26xan 7 urte bete zenduazelako, eta ELENE, gaur 5 betetzen dozuzelako. Musu haundi bana gure bi printzesentzat famelixa guztiaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
28an: 22:30
29an: 20:00
30ean: 20:30

"Anna"

Zuzendaria: Luc Besson



(1 ARETOAN)
28an: 17:00, 19:45, 22:30^(a)
29an: 17:00, 20:00^(antzokia)
30ean: 20:30^(antzokia)

"Mientras dure la guerra"

Zuzendaria: Alej. Amenabar



(2 ARETOAN)
28an: 19:45, 22:30
29an: 17:00, 20:00
30ean: 20:30

"Agur Etxebeste!"

Zuzendaria: Telmo Esnal



(ANTZOKIAN)
28an: 17:00^(2 aretoa)
29an: 17:00

"Mascotas 2"

Zuzendaria: Josh Cooley



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukalde eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 632-521840.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 681-013032. Carla.
- Etxe zoragarria alokagai Maria Cristina hotelaren parean Donostiako zinemaldiaren aste osorako. Baita bigarren hamabostaldidiko ere. Tel. 689-232882.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Opel Corsa 1400, 90 cv, Eco (GLP) salgai. 2017koa. 7.000 kilometrorra heldu gabe. 9.990 euro. Tel. 658-714437.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Gazteentzako lokala alokagai Eibarren. Tel. 686-280395.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 681-310989.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 2 urteko esperientzia. Tituluarekin. Tel. 631-627419.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tituluarekin. Tel. 602-490595.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-735551.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Formakuntza eta erreferentziak. Tel. 622-809011.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta kamarera jarduteko. Orduka. Tel. 643-707623.

- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 677-689227.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 612-296098.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 612-556910.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 643-398596.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-532426.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. HHko tituluarekin. Tel. 644-355050.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-112785.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 603-651876.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 662-012834.
- Geriatria tituludun neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 652-532589.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 638-908730.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-776998.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 649-025614.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 688-959575.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 600-890435.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita gauzez ere. Tel. 671-763558.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-197217.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-768803.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 610-010318.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak ospitalean zaintzeko. Tel. 617-896989.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-202358. Elvin.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 632-415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-303155.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-133720. Indira.
- Erizain-laguntzaile titulua duen mutila eskaintzen da lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 633-496455.

4.2. Langile bila

- Dekoratzaileria behar da altzari-denda batean. Esperientziarekin. Tel. 649-781942.
- Kamarera/o behar da asteburuetan Eibarren lan egiteko. Curriculum-a bidali: tre@euskalnet.net
- Astebururako kamarera/o eta garbitzaileria behar dira jatetxe batean. Tel. 943-121262.
- Sukaldaria behar da taberna batean. Tel. 665-308025.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeniaritza ikasketak hasi dituen ikasleak irakaslea behar du. Tel. 636-523804.

5.2. Eskaintzak

- LHko klase partikularrak ematen ditu. Magisteritzako formakuntzarekin. Tel. 605-746908.
- LHn graduatua eta aisialdirako begirale tituludunak klase partikularrak ematen ditu. Tel. 665-606832.
- Euskera irakaslea behar da DBH 2. mailako ume batentzat eta 8 urteko beste batentzat. Astean bitan. Tel. 653-735874.
- DBH eta Batxilergo klaseak ematen dira. 4 lagunez osatutako taldeak gehienez. Tel. 685-739709.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Aulki elektriko tolesgarria salgai, litiozko bateriarekin. Garantiarekin. Ia erabili gabe. Tel. 616-234643.
- DBH 3ko Eki proiektuko iazko liburua erosiko nituzke. Tel. 679-323452. Cristina.

6.2. Eman

- Helduentzako bigarren eskuko bizikleta hartuko nuke. Tel. 656-704387.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

ORBEA HAURRESKOLA



Bittor Sarasketa, 11 Tel. 943 20 03 84
 orbea.eibar@haurrekolak.eus 



etorri eta informatu zaitez!!!



HAURREN
 ERITMOAK
 ERRESPECTATUZ

MUGIMENDU
 LIBREA



MATRIKULAZIOA:
 urriaren **1**etik **9**ra



Euskara Elkarte



SAGARDO EGUNA 2019

Urriak 5
zapatua

Untzaga plazan

12:00etatik 14:30era

19:00etatik amaitu arte



SAGARDOGILEAK:



Residencial

IPURUAALDEA

SOSTOA TARREN 14, EIBAR

**3 LOGELAKO
16 ETXEBIZITZA**



Larragest



INMOBILIARIA AGENTZIA

F. Calbetón, 22 660 976 156 / 690 610 715